

Abenduaren 30eko 18/1987 FORU ARAUA, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

AURKIBIDEA

ATARIKO TITULUA I. KAPITULUA: IZAERA ETA EDUKIA.....	5
1. artikulua.	5
2. artikulua.	5
3. artikulua.	5
4. artikulua.	5
5. artikulua.	6
II. KAPITULUA: ZERGA APLIKATZEKO LURRALDE EREMUA	6
6. artikulua.	6
I. TITULUA: ONDARE ESKUALDAKETAK	10
I. KAPITULUA: ZERGAGAIA.....	10
7. artikulua.	10
II. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOA.....	13
8. artikulua.	13
9. artikulua.	14
III. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA	14
10. artikulua.	15
IV. KAPITULUA: ZERGA KUOTA.....	17
11. artikulua.	17
12. artikulua.	20
13. artikulua. (ezabatua).....	20
V. KAPITULUA: ARAU BEREZIAK.....	20
14. artikulua.	21
15. artikulua.	22
16. artikulua.	23
17. artikulua.	23
II. TITULUA: ERAGIKETA SOZIETARIOAK	24

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Agindua, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotaraino aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)

I. KAPITULUA: ZERGAGAIA.....	24
18. artikulua.....	24
19. artikulua.....	25
20. artikulua.....	25
II. KAPITULUA: SUBJEKTU PASIBOA.....	26
21. artikulua.....	26
22. artikulua.....	26
III. KAPITULUA: OINARRI EZARGARRIA	26
23. artikulua.....	26
IV. KAPITULUA: ZERGA KUOTA.....	27
24. artikulua.....	27
III TITULUA: EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK	27
I. KAPITULUA: PRINTZIPIO OROKORRAK	27
25. artikulua.....	27
II. KAPITULUA: NOTARITZAKO DOKUMENTUAK	27
26. artikulua.....	27
27. artikulua.....	28
28. artikulua.....	28
29. artikulua.....	29
III. KAPITULUA: MERKATARITZAKO DOKUMENTUAK	29
30. artikulua.....	29
31. artikulua.....	29
32. artikulua.....	29
33. artikulua.....	30
34. artikulua.....	30
35. artikulua.....	31
36. artikulua.....	31
IV. KAPITULUA: DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK	31
37. artikulua.....	31
38. artikulua.....	32
39. artikulua.....	32
40. artikulua.....	32
IV TITULUA: XEDAPEN AMANKOMUNAK.....	32
I. KAPITULUA: ZERGA ONURAK	32
41. artikulua.....	33
II. KAPITULUA: BALIOAK EGIAZTATZEA.....	48
42. artikulua.....	48
43. artikulua.....	49
44. artikulua.....	50
45. artikulua.....	50
46. artikulua.....	50
47. artikulua.....	51
III. KAPITULUA: SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA	51
48. artikulua.....	51
49. artikulua.....	51
IV. KAPITULUA: EGINBEHAR FORMALAK	52
50. artikulua.....	52
51. artikulua.....	53
52. artikulua.....	53
53. artikulua.....	53
54. artikulua.....	54
55. artikulua.....	54
56. artikulua.....	55
V. KAPITULUA: ZERGAREN ORDAINKETA	55
57. artikulua.....	55
VI. KAPITULUA: ITZULKETAK.....	55
58. artikulua.....	55
XEDAPEN IRAGANKORRAK	56
Lehenengoa.....	56

Bigarrena.....	56
Hirugarrena. Sozietate gardenen erregimen iragankorra.	56
XEDAPEN GEHIGARRIA.....	57
Lehenengoa.....	57
Bigarrena. Izatezko bikoteak.....	57
AZKEN XEDAPENAK	57
Lehenengoa.....	57
Bigarrena.....	57
Hirugarrena.	57

ZIOEN AZALPENA

Euskadirako Autonomía Estatutuaren 41.2.a) artikuluekin bat, Lurralde Historikoetako erakunde eskudunek, beren lurralde barruan, zerga errejimena ezarri, arautu eta eduki ahal izango dute Estatua eta Euskal Herriaren arteko Kontzertu Ekonomiko arauari atxikiz.

Kontzertu Ekonomikoko 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, Ondare Eskualdaketa eta Ekitaldi Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak arautegi autonomoko zerga kontzertatu izaera du, eragiketa sozietario, aldaketa letra eta hauek ordezkatzeko dituzten dokumentuak edo giro funtsa betetzen dutenak salbu, hauek arautegi amakomunetik ibiliko bait dira.

Beraz Foru Arau honen onarpenak Gipuzkoako Lurralde honetako Batzarre Nagusiei dagokien arautze autonomia ahalmenaren erabiltzearen adierazpen bat da, bertan autonomia horri aurrez aipatu arauan Kontzertu Ekonomikoak ezarten duen muga errespetatu delarik.

Arauaren edukiari dagokionez ezaugarriarik nabarmenen bezala jarraian zehazten direnak dira.

Zergaren errejimen substantiboa, aldizkako punturen batean salbu, gaur arte Lurralde Historiko honetan eta Euskal Elkarte Autonomoko baste bi Lurraldeetan indarrean zegoenaren berdina da funtsean, Elkarte honetako esparruan geroaldirako desiraturako uniformitate arautzaile bat erraztu asmoz.

Hala ere, Arauaren testuak berritasun garrantzitsuak agertzen ditu beste lurraldeetan indarrean daudenekin parekatuz, lege xedapen berrien ondorioz Zerga honen errejimenean sorturiko funtsezko erreformak kontutan izan bait dira, lege xedapenen artean azpimarkatzeakoak izanik Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ezarketa, egintza judizialeko eta administrazio egintza gehienetarako Ekitaldi Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga kentzekoak eta Zergaren tarifa osotzen duten oinarri batzuren aldaketa.

Beraz Foru Arau honetako ezaugarriarik nabarmenena eguneratzea da eta honi buruz esan daiteke Zerga hau erregulatzen duen 1980ko ekainaren 21eko Legearen ondoren sarturiko lege erreforma guztien artetik, izaera sektorialeko lege berrien arabera (Pentsio Fondoa, Lan Sozietate Anonimoak, Enpresetako Denboraldiko Batasunak eta Elkarreak, etab.) ezarritako errejimen bereziak bakarrik gelditzen direla Arautik kanpo, horiek duten helburuzko esparru zehatz eta mugatua dela eta egoki eritzi bait zaio Zergaren Arau orokor honen korpusetik Kanpo uztea, Arauaren Xedapen Gehigarrian formulatzen den indarraldiko onespren espresuaren kaltetan gabe.

Zergaren betebeharrak formalei dagokienez autolikidazio errejimena gauzatzen duten oinarriko aginduak biltzen dira Arauan eta likidazio modu honek eraginda orain arte indarrean zeuden zenbait agindu, oraingo idazketan zentzurik ez zutenak, zergaren aitortze eta ordainketa modu honetara egokitzen dira.

Azkenik aipatzekoa da zergaren jeltziorako horren garrantzitsua den puntu hau, oinarri ezargarria zehazten duten balioen egiaztapena eta azken finean, zergaren behin betiko likidazioa, hobetu eta argitzen dela.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA: IZAERA ETA EDUKIA

1. artikulua.

1. Ondare Eskualdaketa eta Ekitaldi Juridiko Dokumentatuen gaineko zerga, zeharkako izaeradun zerga da, eta ondorengo artikulutan ezarritako hitzetan kargatuko ditu:

1.—Kargadun ondare eskualdaketak.

2.—Eragiketa sozietarioak.

3.—Ekitaldi juridiko dokumentatuak.

2. Inolako kasutan ezingo da egintza bera ondare eskualdaketa kargadun bezala eta eragiketa sozietario bezala likidatu.

2. artikulua.

1. Foru Arau honek arautzen duen Zerga egintza edo kontratu likidagarriaren benetazko izaeraren arabera esijitu da, edozein delarik ere aldeek eman dioten izena, bere balio eta eragikortasunari erasan dakiekeen bai berezko eta bai formazko akatsak bazter batera utziz.

2.² Baldintzaren bat jarrita duten egintza edo kontratuetan, horien kalifikazioa Kode Zibilean ezarritako preskripzioen arabera egingo da.

Baldintza hori suspentsiboa bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte, eta likidazioaren gerorapena dagokion Erregistro Publikoko ondasun inskribapenean konstaraziko da.

Baldintza indargabetzailea bada, zerga exijituko da, itzulketa eskubidea gordez beti ere, baldintza betetzen denean.

3. artikulua.

Negozio bakar bati ezin zaio esijitu eskubide bakar baten ordainketa besterik, baina dokumentu edo kontratu bakar batek bere baitan berezirik zergari lotutakoen multzo bat badu, haietako bakoitzari ezarritako eskubidea esijituko zaio, beste zerbait erabakitzen den kasuetan salbu.

4. artikulua.

1. Trasmittituriko ondasun eta eskubideak, edozein delarik ere beren edukitzailea, eskualdaketa horiek kargatzen dituzten zergen ordainketaren erantzukizunari atxekiko zaizkio, hura errejistrozko fede publikoak babestutako

² 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Bat apartatuak aldatu du, 2000ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

hirugarren bat dela gertatzen denean edo, ondasun higikor ez inskribagarrien kasuan, ondasunen eskuratzea asmo zuzenez eta titulu doiz merkataritza edo industria ezarpenetan egin dela zuritzen denean salbu. Atxekidura Notariak konstarazi beharko dute baimena ematen dieten dokumentuetan egindako ohar egoki bidez. Ez da kontsideratuko errejistrozko fede publikoak babestua hirugarrena Errejistroan atxekidura hori espreski konstatzen denean.

2. Bere behin betirako eragikortasuna Zergadunak ondoren bete beharko duen baldintzaren baten pean dagoen exenzio edo gutxitze bat ematen den guztietan, Bulego Likidatzaileak oharrean ager eraziko du, emandako exenzio edo gutxitzerik egon ez balitz igorri beharko litzatekeen likidazioaren zenbatekoaren osoa konstarazi beharko dela zerga onurean.

Jabetza Errejistratzaileek edo Merkataritzakoek, aparteko oharrean konstaraziko dute eskualdaturiko ondasunen atxikimendua esandako zenbatekoa ordaintzerakoan, onurak eman zituen araeuan ezarritako epeetan, horien behin betiko eraginkortasunerako bertan galdatutako baldintzak beteko ez liratekeen kasurako.

3. Era berean, konstaraziko da, bazterreko oharrez, domeinu adartze kasuetan, usufruktua deusezteari dagokion likidaketaren ordainarekiko ondasunen atxekidura, horretarako Bulego Likidatzaileek behin behingoz egokitzen dena zuzenketari erasan gabe, usufruktua osatze unean egozgarri ziren oinarri eta tipoen arabera.

5. artikulua.³

Foru arau honetan berariaz kargatu gabeko egin-tzak eta kontratuak zein lege aginduz horiekin parekatu gabeak zergari lotu gabekotzat hartuko dira. Dena den, Ogasun eta Finantza Departamentuak beharrezko prozedura jarri ahal izango du abian, saiheste kontrako klausula aplikatzearen, berak kalifikatzeko jarri den egintza edo kontratua zerga saihesteko asmoz egin denean, baldin eta horren emaitza kargapeko beste egintza juridiko baten baliokidea bada.

II. Kapitulua: Zerga aplikatzeko lurralde eremua

6. artikulua.⁴

Bat. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du hurrengo kasuotan:

A) Ondare eskualdaketak:

³ Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikuluaen bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

⁴ Artikulu hau Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duen urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUAren III Kapituluko 8.artikuluak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak. (GAO 2003-02-06).

1. Ondasun higiezinak ordain truke eskualdatu eta errentatzean, eta euren gaineko ondasun eskubideak, bermeak barne, ordain truke eratu edo lagatzean, baldin eta ondasun horiek Gipuzkoan kokatzen badira.

Baloreen Merkatuari buruzko Legearen testu bategineko 314. artikuluan ageri diren kasuetan, eskualdatzen diren baloreei dagokien entitatearen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak Gipuzkoako lurraldean daudenean (testu bategin hori 2015eko urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).⁵

2. Ondasun higigarriak, abereak eta kredituak ordain truke eskualdatzean edo horien gaineko eskubideak ordain truke eratu eta lagatzean, baldin eta eskuratzailerak, pertsona fisikoa izanik, Gipuzkoan badu bere ohiko egoitza eta, pertsona juridikoa izanik, lurralde horretan badauka zerga helbidea.

Aurrekoa hala bada ere, honako bi salbuespen hauek jarri dira:

a) Akzioak, harpidetza-eskubideak, obligazioak, antzeko tituluak eta gainerako baloreak zein sozietateen partaidetzak eskualdatzean, eragiketa Gipuzkoan formalizatzen denean.

b) Higigarrien hipoteka edo lekualdaketa gabeko bahitura osatzerakoan edo tartean itsasontzi edo aireontziak dauden kasuetan, egintza horiek Gipuzkoan inskribatu behar direnean.

3. Mailegu sinpleak, fidantzak, ez-higiezinaren errentamenduak eta pentsioak eratzen direnean, baldin eta mailegu hartzaileak, fidantzatuak, errentariak edo pentsiodunak, pertsona fisikoa izanik, Gipuzkoan badu bere ohiko egoitza edo, pertsona juridikoa izanik, lurralde horretan badauka zerga helbidea.

Maileguak ondasun bermea duenean, berriz, hipotekadun ondasun higiezinak Gipuzkoan badaude edo lurralde horretan inskribatu badaitezke higigarrien hipotekak edo lekualdaketa gabeko bahiturak.

Baldin eta mailegu bat Gipuzkoan eta beste lurralde batean, foru lurraldea izan edo komuna izan, kokatutako hainbat ondasun higiezinaren gaineko hipotekarekin bermatuta badago, edo lurralde bietan inskribatu daitekeen higigarrien hipotekarekin nahiz lekualdaketa gabeko bahiturarekin bermatuta badago, batzuei eta besteei egozten zaien erantzukizunaren arabera proportzioan ordainduko zaio zerga administrazio bakoitzari, eta, zehaztapen hori eskrituran espresuki jasorik ez badago, ondasunen balio egiaztatuen arabera proportzioan.

4. Ondasunen emakida administratiboetan, ondasunak Gipuzkoan kokatzen direnean, eta obra exekuzioetan eta zerbitzu ustiapenetan, horiek Gipuzkoan exekutatu edo ematen direnean. Arau horiek beroriek aplikatuko dira

⁵ Paragrafo hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAren 4. artikuluko bigarren ordinalaren bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO).

administrazio-emakidekin berdinen direlako zergapean dauden administrazio egintza eta negozioetan ere.

Gipuzkoaren lurralde eremua gainditzeko duten ondasunak ustiatzeko emakidak direnean, Gipuzkoako lurraldean okupatzen duten azaleraren arabera eskatuko da zerga.

Gipuzkoaren lurralde-eremua gainditzeko duten obrak burutzeko emakidak direnean, Gipuzkoako lurraldean egingo diren obren zenbatekoa kalkulatu da eta horren arabera eskatuko da zerga.

Gipuzkoaren lurralde eremua gainditzeko duten zerbitzuak ustiatzeko emakidak direnean, ukitutako gainerako lurraldeen guztizkoaren gainean Gipuzkoko biztanleriak eta azalerak dauzkaten ehunekoen batez besteko aritmetikoaren arabera eskatuko da zerga.

Gipuzkoaren lurralde eremua gainditzeko duten emakida mistoak badira, aurreko hiru paragrafoetan jasotako irizpideak emakida-zatiari aplikatuta eskatuko da zerga.

Gipuzkoaren lurralde eremua gainditzeko duten administrazio-emakidak badira, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskatuko du zerga, erakunde emakidadunaren zerga helbidea bertan dagoenean.

B) Sozietateen eragiketak:

Hurrengo egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

1. Entitateak Gipuzkoan duenean zerga helbidea.
2. Erakundeak sozietate egoitza Gipuzkoan duenean, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga administrazio bateko lurralde esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, estatu horrek ez baldin badu kargatzen sozietate eragiketa antzeko beste zergaren batekin.
3. Entitateak operazio batzuk Gipuzkoan ere egin behar dituztenean, baldin eta benetako zuzendaritza-egoitza eta egoitza soziala Europako Batasuneko kide diren estatuetakoren bateko beste zerga administrazio bateko lurralde esparruan ez badago; edo, hala egonik ere, baldin eta estatu horiek sozietate eragiketa kargatzen ez badituzte antzeko beste zergaren batekin.

C) Egintza juridiko dokumentatuak:

1. Eskritura, akta eta lekukotasun notarialetan, batzuk eta besteak Gipuzkoan baimendu edo ematen badira.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren karga-kuota mailakatua duten kasuetan sartuz gero, ondasun edo egintza horiek inskribatu edo anotatzeko erregistroa Gipuzkoan kokatzen denean.

2. Ganbio letretan eta horien ordezkari agiritan nahiz igorpen funtzioa betetzen dutenetan, bai eta ordaindukoen, bonoen, obligazioen eta antzeko tituluetan ere, baldin eta euren libramendua Gipuzkoan egiten bada edo, libramendu hori atzerrian eginez gero, lehen edukitzailearen ohiko egoitza edo zerga helbidea lurralde horretan badago.

3. Prebentziozko oharpenetan, Gipuzkoako erregistro publikoetan egiten badira horiek.

Bi. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako:

A. Pertsona fisiko batek bere ohiko egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan duela ulertuko da honako arauak elkarren jarraian betetzen dituenean:

1. Zergaren sortzapenaren aurreko eguna amaitzen den aurreko lehen urtean, egunetik egunera zenbatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan egun gehiago eman direnean, egun gehiago igarotzea Gipuzkoan beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino.

Lurralde jakin batean pertsona batek zenbat denbora eman duen zehazteko, aldi baterako kanpoan izandako denbora hartuko da kontuan.

Aurkako frogarik ezean, pertsona fisiko bat Gipuzkoan bizi dela ulertuko da bere ohiko etxebizitza bertan kokatuta dagoenean.

2.⁶ Interesen gune nagusia Gipuzkoan duenean. Zirkunstantzia hori betetzen dela ulertuko da pertsona fisiko batek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriaren zatirik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan lortua izanik, Gipuzkoan lortzen duen oinarri ezargarria beste bi lurralde historikoetako bakoitzean lortutakoa baino handiagoa denean. Bi ondorio horietarako, kapital higikorretik eratorritako errentak eta ondare irabaziak eta egotzitako oinarri ezargarriak hortik kanpo geratzen dira.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza Gipuzkoako lurralde historikoan kokatuta dagoenean.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -komun edo foralean- zehaztea. Hirugarrena, berriz, lehen eta bigarren arauak aplikatu ondoren zirkunstantzia hori bera gertatzen denean ezarriko da.

B. Pertsona fisikoek, lurralde espainiarrean egoiliarak izanik, ez badute igarotzen bertan urte naturalaren barruan 183 egunetik gorako denbora, Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliartzat hartuko dira beren jardura enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea nahiz beren interes ekonomikoena lurralde horretan kokatzen bada.

⁶ 2. arau hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren II Kapituluko 6. artikulua bigarren apartatuaren bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu (GAO 2004-04-16).

Pertsona fisikoek, aurreko paragrafoan esandakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoan dutenean beren egoitza, Gipuzkoan bizi direla joko da beren jarduera enpresarial edo profesionalen gune nagusi edo basea nahiz beren interes ekonomikoena bertan kokatzen bada.

C. Pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela ulertuko da lurralde espainiarrean egoiliarra dela uste denean, legez banandu gabeko ezkontidea eta haren menpe dauden adingabeko seme-alabak Gipuzkoan bizi direlako, bestelakorik frogatzen ez den bitartean.

D. Bizilekua aldatzearen helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea baldin bada, aldaketa horiek ez dute ondoriorik edukiko.

E. Pertsona juridikoen zerga helbidea Gipuzkoan dagoela joko da baldin eta beren sozietate helbidea lurralde horretan badago eta beren negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza bertan kokatzen bada. Gainontzeko kasuetan, kudeaketa- eta zuzendaritza-lan horiek non burutzen diren hartuko da kontuan.

Aurreko irizpideen arabera ezin denean zehaztu zerga helbidea non den, pertsona juridikoek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

F. Establezimendu iraunkorrek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertu beharko da, haien kudeaketa administratiboa edo negozioen zuzendaritza lurralde horretan gauzatzen denean. Irizpide hori erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan, aurreko E letraren azken paragrafoan jasotako irizpidea erabilita.

G. Sozietate zibilek eta nortasun juridikorik gabeko enteek zerga helbidea Gipuzkoan dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan gauzatzen direnean. Baldin eta kudeaketa eta zuzendaritzari buruzko irizpidea erabilita ere ezin bada zehaztu sozietate zibilen eta nortasun juridikorik gabeko enteek zerga helbidea, ulertu behar da helbidea Gipuzkoan dutela, haien ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, Gipuzkoan ibilgetuaren balio handiagoa dutenean beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino.

Hiru. Artikulu honetan xedatutakoa ulertu behar da Estatu Espainiarrak sinatu eta baieztatu edo atxikimendua eman dien nazioarteko itun eta hitzarmenetan jasotakoa eragotzi gabe.

I. TITULUA: ONDARE ESKUALDAKETAK

I. Kapituluak: Zergagaitza

7. artikulua.

1. Loturiko ondare eskualdaketak dira:

a) Egite “inter vivos”agatik pertsona fisiko edo juridikoen ondarea osatzen duten eskubide eta ondasun moeta guztien transmisio kargadunak.

b)⁷ Ondasun eskubideak, maileguak, fidantzak, errentamenduak, pentsioak eta emakida administratiboak eratzea, salbu azken hauen helburua trenbide azpiegiturak edo portu eta aireportuetako ondasun higiezinak edo instalazioak erabiltzeko eskubidea lagatzea denean.

Eskubide eraketa moduan likidatuko da eskubideen edukiaren ondorengo zabalpena, titularraren ondare gehikuntza ekartzen duenean, eta azken hori hartuko da zergaren oinarritzat.

2. Likidazio ondorioetarako eta zergaren ordainketarako ondare eskualdaketatzat joko dira:

a)⁸ Zorren ordainez egindako esleipenak, beren gain hartutako zorren ordainez egindako esleipenak eta zorrak ordaintzeko esleipenak. Zorrak ordaintzeko esleipendunek kreditatzen badute esleitu zitzaizkien ondasun edo eskubide berberak bi urteko epean hartzekodunari eskualdatu dizkiotela kredituaren kaudimen gisa, edo helburu horretarako, epe berberaren barruan hirugarren bati eskualdatu dizkiotela justifikatzen badute, esleipen horiengatik ordaindutako zerga itzultzea eskatu ahal izango dute.

b)⁹ Aitortutako adjudikazio soberakinak, salbu eta Kode Zibilaren 821., 829., 1.056. (bigarrena) eta 1.062. (lehenengoa) artikuluetan edo funts berean oinarritutako Euskal Zuzenbide Zibileko xedapenetan ezarritakoa bete-tze-tik sortutakoak, eta, bereziki, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak baserriaren eta hari lotutako lurren inguruan arautzen duen doako eskualdaketatik datozenak.

c) Domeinu espedienteak, notorietate aktak, Hipoteka Legeko VI titulua dagokien dokumentu publikoen akta osagarriak eta Lege bereko 206 artikulua onorioetarako luzatutako ziurtagiriak, zerga ordaindu dela edo eskualdaketagatik atxekidurarik eza edo salbuespena kreditatzen ez bada behintzat, zeintzuen titulua beraiekin ordezkatzan denean eta batzuen eta besteen gai diren ondasun beraiegatik, preskripzioari dagokionean salbu zeinaren epea espedienteak, akta edo ziurtagiariaren datatik kontatuko da.

⁷ b) letra hau, Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 Foru Arauaren 5. artikuluko apartatu lehenak aldatzen du. 2001eko otsailaren 17an sartu zen indarrean.

⁸ a) letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

⁹ b) letra hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUAren 4. artikulua aldatu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-11-18ko GAO), eta 2016ko urtarilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

d)¹⁰ Pertsona jakin baten aldeko jabaria onartzea, aurreko apartatuan egindako salbuespen berarekin, Hipoteka Legearen 200. artikuluan eta beronen Erregelamenduko 298. artikuluan araututako gehiegizko edukierak barne.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izanik ere, ez dira kargatuko kasuan kasuko elementuaren azalera zuzentze huts bati dagozkion gehiegizko edukierak, Hipoteka Legearen exekuzio Erregelamenduko 298. artikuluko 3. apartatuak aipatzen dituenak.

3.¹¹ Hipoteka Legearen 11. artikuluan aipatzen diren baldintza suntsiarazle espresuak prezio geroratuaren ordainketa saldutako ondasun higiezinarekin bermatzen duten hipotekekin parekatuko dira.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko ondasun higiezinaren eskualdaketetan prezio geroratua ordaintzea bermatzen duten hipotekek eta baldintza suntsiarazle espresuek ez dute zergarik ordainduko “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuagatik.

4. Zerga honen ondorioetarako, apartzeria kontratuak eta azpierrentakoak errentakoenaren pareko izango dira.

5.¹² Ez dira titulu honetan arautzen diren «kostu bidezko ondare eskualdaketen» kontzeptuari lotuta egongo lehenago aipatutako eragiketak, baldin eta, eskuratzailearen izaera kontuan hartu gabe, enpresari edo profesionalek beren jarduera ekonomikoaren barruan egiten badituzte eta, nolana ere, balio erantsiaren gaineko zergari lotutako ondasun entregak edo zerbitzu prestazioak egitea badakarte.¹³

Aurreko paragrafoan jasotakoa jasota ere, zerga kontzeptu horri lotuta geratuko dira ondoko hauek:

a) Ondasun higiezinaren salmentak edo errentamenduak, bai eta horien gaineko erabilpen eta gozameneko ondasun eskubideen eraketa eta eskualdaketa, Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita daudenean.

¹⁰ d) letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

¹¹ 3. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/12/28ko GAO).

¹² 5. apartatu hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren II Kapituluko 6. artikulua lehenengo apartatuaren bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO, 70 zki.a, 2004-04-16 koa).

¹³ Lehen paragrafoa abenduaren 20ko 4/2022 Foru Arauaren 7. artikulua aldatu du. Foru Arau horrek zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten ditu. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

b)¹⁴ Subjektu pasiboaren ondare enpresarial edo profesionalaren parte diren eta, bere bitartekoak erabilia, jarduera enpresarial edo profesional bat garatu dezakeen unitate ekonomiko autonomo bat osatzen duten elementu gorpuzdunak eta, hala badagokio, gorpuzgabeak eskualdatzean ondasun higiezinaren entregak egitea, baldin eta kasuan kasuko zirkunstantziengatik ondare horren eskualdaketa ez badago Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta.

Letra honetan aipatu diren kasuetan, eskualdaketa horretan sartzen diren higiezinak ez diren gainerako ondasun eta eskubideen salmentak ez dira lotuta egongo titulu honetan araututa dagoen “kostu bidezko ondare eskualdaketak” kontzeptuari.

Letra honetan jasotakoa ez zaie aplikatuko konkurtso prozeduren barruan egindako produkzio unitateen eskualdaketei, eskuratzailerak produkzio unitate horietan sartutako ondasun higiezinaren entregaren kuotaren kenkari osoa egiteko eskubidea duen balio erantsiaren gaineko zergaren zergadun bat denean, baldin eta eskualdaketa horiek zerga horri lotuta eta salbuetsi gabe badaude.¹⁵

6. Balio Erantsiaren gaineko Zergapekoak izan eta horren salbuespena ez duten ondasun higiezinaren enpresa-eskualdaketa guztiak aipatu zergaren bidez likidatuko dira, 25. artikuluan Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko kargari buruz aurreikusitakoaren kaltetan gabe.

Goiko pasartean ezarritakoa hala izanik ere, autolikidazioa Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren “kargadun ondare eskualdaketa” ereduaz egiten bada, horrek ez du inolaz ere Balio Erantsiaren gaineko Zergapeko subjektu pasiboak zerga horrek sortzen dituen betebeharretatik salbuetsiko, bere kasuan aipatu “kargadun ondare eskualdaketa” ereduaz oker egindako sarreraren itzuketaren eskubidearen kaltetan gabe.¹⁶

II. Kapituluak: Subjektu pasiboa

8. artikulua.

Zergaren ordainketara behartuak daude, zergadun izenean, eta edozein direlarik ere aldeek kontra ezarritako baldintzak:

¹⁴ b) letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2009/12/28ko GAO).

¹⁵ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2018 foru arauaren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/05/17ko GAO).

¹⁶ 6. apartatu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 3. artikuluko gehitu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez.

- a) Ondasunen eta eskubide mota guztien eskualdaketa, hartzen dituen.
- b) Hipoteka Legeko 206 artikulua dagokien domeinu espediente, notorietate akta, dokumentu publikoen akta osagarri eta ziurtagirietan, eragiten dituen pertsona, pertsona jakin baten mesedetan egindako domeinu aitorten edo kabida gehiegiko aitortenetan, zeinaren alde aitortu den pertsona.
- c) Eskubide errealeen osaketa, bere mesedetan osatzen den hura.
- d)¹⁷ Maileguak eratzean, maileguhartzailea, foru arau honetako 41.1.b)-17 artikuluan xedatutakoa bete beharko bada ere.
- e) Fidantza osaketa, fidantzatutako hartzekoduna.
- f) Errentaketen osaketa, errentaduna.
- g) Pentsioen osaketa, pentsionista.
- h) Emakida administratiboan, kontzesioduna

9. artikulua.¹⁸

1. Zerga ordaintzean ondoko hauek izango dira erantzule subsidiarioak:

- a) Maileguak eratzean, mailegu emailea izango da, baldin eta interesak, kapitala edo gauza mailegatua osorik edo zati batean jasotzen baditu mailegu hartzaileari zerga hau ordaindu izanaren frogagirik eskatu gabe.
- b) Errentamenduak eratzean, errentatzailea izango da, baldin eta errentaren lehen epea jaso badu errentariari zerga hau ordaindu izanaren frogagirik eskatu gabe.

2. Era berean, subsidiarioki erantzun beharko du estatu, autonomia, foru lurralde edo udal arloko edozein zergaren subjektu pasiboaren aldaketa baimendu duen funtzionarioak, baldin eta aldaketa horrek zuzenean edo zeharka zerga honek kargatutako eskualdaketa bat badakar eta aurrez zergaren ordainketa eskatu ez badu.

III. Kapituluak: Oinarri ezargarria

¹⁷ d) letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

¹⁸ 9. artikulua hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 120. artikulua aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

10. artikulua.

1. Oinarri ezargarria transmitituriko ondasunaren balio errealak edo utzi edo osatzen den eskubideak finkatua etorriko da. Bere finkatzea, Administrazioak duen bere egiazko balioa egiaztatzeko ahalmenari erasan gabe, Foru Arau honetan dauden eregelekin bat burutuko da.

Ondasunen balio erreala gutxitzen duten kargak bakarrik izango dira kengarriak, ez hala zorrak, nahiz eta hipotekaz edo prendaz bermaturik egon.

2. Bereziki egozgarriak izango dira, jarraiko ataletan dauden arauak:

a)¹⁹ Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balio osoaren proportzioan aterako da, 100eko 2an urtealdi bakoitzeko, 100eko 70 gainditu gabe.

Biziarteko gozamenetan balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70ekoa dela joko da gozamendunak hogeitaz gutxiago dituenean, eta portzentajea adina gehitu ahala gutxituko da urte gehiago bakoitzeko 100eko 1 gutxiagoko proportzioan, balio osoaren 100eko 10eko gutxieneko mugapean.

Pertsona juridiko baten alde osatutako gozamina, baldin eta hogeita hamar urtetik gorako epe baterako edo zehaztu gabeko denbora baterako ezartzen bada, baldintza suntsiarazleari lotutako jabetza osoko eskualdaketatzat hartuko da fiskalki.

Jabetza soileko eskubidearen balioa gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko diferentzia izango da. Aldi baterakoak ere badiren biziarteko gozamenetan, berriz, jabetza soilaren balioa kalkulatzeko, aurreko arau osagarrietatik baliorik txikiena esleitzen diona aplikatuko da.

b) Erabilera eta bizitzeen eskubide errealeko balioa, zegozkien erregelak ezarri zitzaizkien aldizkako edo bitalizio usufruktuen balorazioari ondasunen balioaren % 75 egotziz ateratzen dena izango da.

c) Hipotekak, prendak, antikresiak eta findantzak bermatutako kapitalaren edo obligazioaren zenbatekoan baloratuko dira, interesagatik, kalteordainagatik, ez betetzeagatik zigorragatik eta antzeko kontzeptuagatik ziurtatzen diren zenbatekoak sartuz. Bermatutako zenbatekoaren zenbatekoa espreski konstaraziko ez balitz, oinarritzat kapitala eta hiru urtetako interesak hartuko dira.

d)²⁰ Aurreko apartatueta jaso gabeko eskubide errealak alderdiek, horiek eratzean, hitzartutako kapital, prezio edo balioaren arabera egotziko dira, baldin eta errentaren edo urteko pentsioaren zerga sortzen den datan indarrean

¹⁹ Letra hau martxoaren 10eko 2/2022 Foru Arauaren azken xedapenetako lehenak aldatu du. Aipatutako foru arauak Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzen du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hilabetera sartzen da indarrean (2022/03/17ko GAO).

²⁰ d) letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

dagoen diruaren legezkotik interesaren egin kapitalizazioetik ateratzen denaren berdina edo handiagoa bada, edo azken kopuru honen arabera bestela, hura txikiagoa bada.

e)²¹ Legez etxebizitza errentamenduetatik hartzen diren finka hiritarren errentamenduetan, kontratuak irauten duen denboragatik guztira ordaindu beharrekoa izango da oinarria. Zenbat irauten duen agertzen ez bada, likidazioa egingo da urte bat konputatuta, baina horrek ez du galaraziko urteko likidazio gehigarriak egin behar izatea Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeak aurreikusten duen nahitaezko luzapena gertatzen denean –hiru urte gehienez, edo, kasua bada, urte bat gehiago—. Gainerako errentamenduetarako, oinarritzat hartuko da kontratuan hitzartutako edo legez jasotako iraupen osoarengatik ordaindu beharreko zenbateko osoa, bai eta hitzartu edo aplikatu daitezkeen luzapenei dagozkienak ere

f)²² Pentsioen oinarri ezargarria zehazteko, kapitalizatu egingo dira zergaren sortzapen datan indarrean dagoen diruaren legezkotik interesaren arabera, eta ateratzen den kapitaletik hartu egingo da usufruktuak baloratzeko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia, pentsioa biziartekoa bada, edota pentsioaren iraupenari dagokiona, aldi baterako bada. Pentsioaren zenbatekoa ez denean diru-unitatetan zenbatzen, oinarri ezargarria zehazteko lanbide arteko gutxieneko soldataren urteko zenbatekoa kapitalizatuko da.

g) Boltsan kotizaturiko titulu-balioen eskualdaketetan, hartzea gertatzen den unean Boltsako kotizaketatik ateratzen den egiazko balioa izango da, edo, bere faltan, kotizatu den aurreko lehen eguneko, aurreko hiruhilabetekoaren barruan.

Beren tituluak Boltsan kotizatzen ez diren entitateetako kapital sozialeko partaidetzen eskualdaketetan, oinarri ezargarria azkena onarturiko balantzetik ateratzen diren beren balio teorikotik eratortzen dena izango da, administrazioaren egiaztapenak balio ezberdinak emateari erasan gabe.

Beste edozein titulu-balioen eskualdaketetan, oinarria bere izenezko balioak osatuko du.

h) Obra, zerbitzu edo hornikuntzen adjudikaziodunaren alde beregandik sortzen diren eskubideen eskualdaketa kargadunetan, oinarritzat hitzartutako salneurria erabiliko da, eta hau erabaki gabe agertuko balitz edo egiteke geldituko litzatekeen kontratuari finkaturikoa baino % 6 txikiagoa balitz.

i) Erregadiora zuzendutako uren inskribapenerako baimena hartzen duten notorietate aktetan, dela Jabetza Erregistroan, dela administratiboetan, ur

²¹ Letra hau abenduaren 16ko 18/2014 FORU ARAUAren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Foru araua 2014/12/20ean sartzen da indarrean.

²² f) letra hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

horiekin mesede hartzen duten lurrei ezarritako aberastasunaren %16aren kapitaltzea hartuko da oinarritzat.

j)²³Finka landatarren gasaila-kontratueta, oinarri gisa Ondasun Higiezin gainera Zergan kontratupeko finkari emandako balio katastralaren %3 hartuko da, kontratuaren iraupen urteen kopuruarekin biderkatuta.

k) Mailegu-eskatzailaren bermea besterik ez duten maileguetan, fidantzaz ziurtatutako maileguetan eta zorra aitortzeko nahiz gordailu ordainduko kontratueta, obligazioaren kapitala edo gordailutako gauzaren balioa. Kreditu kontuetan, mailegu-eskatzailak benetan erabili duena. Nahiz, hipotekaz eta antikresis bidez bermatutako kontratueta, artikulua honen c) apartatuan xedatutakoa bete beharko da²⁴.

IV. Kapituluak: Zerga kuota

11. artikulua.²⁵

1. Zerga kuota kalkulatzeko, eta hurrengo artikuluan ezarritakoa ere aintzat harturik, tasa hauek aplikatuko zaizkio oinarri ezargarriari:

a)²⁶ 100eko 7, ondasun higiezin eskualdaketa bada, eta baita ere horiei dagozkien eskubide errealek lagapena eta eraketa bada, bermeen eskubide errealek salbu.

b)²⁷ Aurreko letran xedatua aintzat harturik ere, etxebizitzaren eskualdaketa orokorrak, ondorengo letran aipatutakoak izan ezik, 100eko 4 tasaren arabera zergapetuko dira, elkarrekin eskualdatzen diren eta eraikin berean dauden gehienez ere bi unitateko garaje plazak eta eranskinak barne. Ondorio horietarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

²³ j) letra hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 121. artikulua aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zk.a, 2003-03-24 koa).

²⁴ k) letra hau Gipuzkoako Lurralde Historikoen 1996rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 5eko 1/1996 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriak aldatu du. 1996ko otsailaren 13tik aurrerako ondorioak ditu.

²⁵ Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAREN 4. artikulua bost apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

²⁶ Letra hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUAREN 9. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2011/12/27ko GAO).

²⁷ Letra hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 6. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

Era berean, 100eko 4ko tasa aplikatuko da aurreko paragrafoak aipatzen dituen ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen eta lagatzen direnean, bermeko eskubide errealeen kasuan izan ezik.

Letra honetan aurreikusitako zerga tasa aplikatzeko, ezinbestekoa izango da zergaduna ez izatea 5 etxebizitza baino gehiagoren titularra, 100eko 50etik gorako portzentajea etxebizitza bakoitzeko. Zirkunstantzia hori frogatzeko, eskuratzailerak horri buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar dio Zerga Administrazioari, erregelamenduz ezarriko diren terminoetan, betiere Zerga Administrazioak bidezkoak diren egiaztapenak egitea eragotzi gabe.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetzen ez bada, etxebizitzaren eskualdaketa 100eko 6ko zerga tasa aplikatuko zaio.

c)²⁸ Aurreko bi letretan xedatutakoa gorabehera, etxebizitzak, eraikin berean dauden garaje plazak (bi unitate gehienez) eta dagozkion eranskinak batera eskualdatzen badira, eskualdaketa horri 100eko 2,5eko tasa aplikatuko zaio eskuratzailerak familia ugariaren titular denean edo kasu hauetako bat gertatzen denean:

- Eskualdatutako etxebizitzaren azalera eraikia ez izatea 120 metro koadrotik edo 96 metro koadro erabilgarritik gorakoa.

- Familia bakarreko etxebizitzak eskualdatzen direnean, horien azalera eraikia 120 metro koadrotik gorakoa ez denean edo 96 metro koadro erabilgarri baino gehiago ez dituztenean, eta lursailaren azalera, eraikinak hartzen duena barne, 300 metro koadro baino gehiagokoa ez denean. Familia bakarreko etxebizitzatzat hartuko da sarrera independentea duena, bai bakartua, binakakoa, atxikia edo ilaran antolatua izan.

Azalera eraikitzat hartuko da fatxaden lerro perimetralen (kanpoko zein barruko) eta mehelinetako ardatzen artean dagoena.

Estalita dauden hegalkinak, balkoiak edo terrazak azalera eraikiaren parte izango dira alboetatik hormek mugatzen dituztenean; bestela, azaleraren 100eko 50 baino ez da konputatuko, modu berean neurtua.

Letra honetan aurreikusitako ondorioetarako, negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren.

100eko 2,5eko tasa aplikatzeko, ondoko beharkizunak bete beharko dira:

a') Eskuratzailerak ezin du eduki jabetzan beste etxebizitza bat 100eko 25etik gorako portzentajea, eskuratu nahi den etxebizitza kokatuta dagoen udalerrri berean.

²⁸ Letra hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 6. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

Beharkizun hori ez da urratutzat joko jabea beste etxebizitza baten titularra denean, betiere etxebizitza hori bi urteko epean eskualdatzen bada, c) letra honetan jasotako tasan tributatu duen etxebizitza eskuratu duenetik aurrera. Adierazitako bi urteko epean etxebizitza eskualdatzen ez bada, 100eko 2,5eko tasa aplikatzeko eskubidea galduko da, eta zerga egoera erregularizatu beharko da, dagozkion berandutze interesak barnean sartuta.

b') Etxebizitza eskuratzaillearen ohiko etxebizitza gisa erabiltzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan eta hura garatzeko xedapenetan aurreikusitakoaren terminoetan.

Etxebizitza ohikotzat hartzeko foru arau horretan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badira, ez-betetze hori gertatu eta hogeita hamar eguneko epean subjektu pasiboak autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko du lehendik aurkeztutakoa osatzeko, bidezkoak diren berandutze interesak sartuta.

Artikulu honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, zergapekoa pertsona fisikoa bada eta jarduera ekonomiko bati atxikita ez dagoen lokal bat egokitzen bada etxebizitza gisa erabiltzeko, Zerga Administrazioak, zergapekoak aurrez eskaturik, bi kopuru hauen arteko aldea itzuliko du: batetik, zerga dela-eta benetan ordaindutako zenbatekoa, eta, bestetik, eskuratutako higiezinari b) eta c) letretan adierazitakoen artean dagokion tasa aplikatetik ateratzen dena. Nolanahi ere, tasa hori aplikatzeko ezartzen diren baldintzez gainera, zergapekoak eskurapena egin denetik 18 hilabete igaro baino lehen frogatu behar du etxebizitza gisa erabiliko duen lokalerako lehen erabilera edo okupaziorako lizentzia jaso duela. Itzulketa horrek ez du berandutze interesik sortuko.

d)²⁹ %4, ondasun higigarrien eta abereen eskualdaketak direnean, baita haien gaineko eskubideak eratu eta lagatzen direnean ere, berme-eskubide errealak alde batera utzita.

%4ko tasa hori aplikatuko da, orobat, uztailaren 6ko 4/2012 Legean aipatzen diren eskubideak partikularren artean eskualdatzen direnean Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotu gabe, haien izaera edozein dela ere. Lege horretan arautzen dira turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuak, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuak, birsaltze eta truke-kontratuak eta bestelako zerga-arauak.

e) %2ko tasa aplikatuko da apartatu honetako beste letretan edo 12. artikuluan jaso gabeko egintzetan.

f) %1eko tasa aplikatuko da berme eskubide errealak, fidantzak edo maileguak eraten direnean, baita obligazio bidez ordezkatuetan ere, kreditu lagapenean bezalaxe, hauen izaera dena dela.

²⁹ Letra hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).

2. Egintza edo kontratu batek berak ondasun higigarriak eta higiezinak jasotzen dituenean horietako bakoitzari dagokion balio zatia zehazteke, higiezi nei dagokien karga tasa aplikatuko da.

3. Beren izaera, xedea, erabilera edo aplikazioa dela eta zergari lotutako ondasunen kalifikazio juridikora begira, honi dagokionez Kode Zibilak edo, bestela, zuzenbide administratiboak xedatzen duenera joko da.

Zergaren ondorioetarako, modu iraunkorrean ezarritako mota orotako instalazioak ondasun higiezintzat hartuko dira, eraikuntza formagatik garraiatzeko modukoak izan arren, eta kokatuta dauden lurra instalazioen beren jabearena ez bada ere.

12. artikulua.³⁰

Etxebizitza eta garaje eta eraskin osagarrien errentamenduak eratzean, eskudirutan ordainduko da zerga hau, mailaketa honen arabera:

<u>Oinarri likidagarria</u>	<u>Euro</u>
30,05 euroraino	0,09
30,06 - 60,10	0,18
60,11 - 120,20	0,39
120,21 - 240,40	0,78
240,41 - 480,81	1,68
480,82 - 961,62	3,37
961,63 - 1.923,24	7,21
1.923,25 - 3.846,48	14,42
3.846,49 - 7.692,95	30,77
7.692,96etik aurrera	0,024040 euro / 0,61 euro edo zati bakoitzeko

13. artikulua.³¹ (ezabatua)

V. Kapitulu a: Arau Bereziak

³⁰ Artikulu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1998rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 22ko 7/1997 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriak aldatu du 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

³¹ Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUaren 4. artikulua ren sei apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

14. artikulua.³²

1.³³ Administrazio emakidek eskubide-eraketa gisa tributatuko dute beti, 11.1.d) artikuluan ezarrita dagoen karga tasa aplikatuta, haien izaera, iraupena eta xede dituzten ondasunak edozein direla ere.

2. Zergaren ondorioetarako emakida administratiboekin parekatuko dira egintza eta negozio administratiboak, haien izena edo modalitatea edozein delarik, zeinen ondorioz zerbitzu publikoen kudeaketarako ahalmena emateagatik edo erabilera edo jabari publiko izaera duten ondasunen probetxamendu berezi edo erabilera pribatiboa esleitzeagatik partikularren aldeko ondare desplazamendua sortuko bait da.

3.³⁴ Arau orokor bezala, oinarri ezargarria zehazteko, emakidadunari ezarritako obligazioen izaeragatik ondoren adierazten direnetatik aplikagarri gertatzen den/diren erregela edo erregelak aplikatuz finkatuko da emakidarako sortarazitako eskubidearen balio erreala:

a) Administrazioak emakidadunak ordaindu beharreko prezio edo kanon kontzeptuagatik zenbateko bat ezartzen bada, zenbateko hori izango da balio erreala.

b) Administrazioak emakidadunak aldian-aldiri ordaindu beharreko kanon, prezio, partaidetza edo gutxieneko mozkin bat ezartzen bada, eta emakidaren iraupena urtebetetik gorakoa ez bada, balio erreala aldizkako prestazioen batura osoa izango da. Emakidaren iraupena urtebetekoa baino handiagoa denean, emakidadunak urtean ordaintzen duen zenbatekoa %10ean kapitalizatuz aterako da, emakidaren epea aintzat hartuta.

Erregela hau aplikatzeko urteko zenbateko aldakor bat kapitalizatu behar denean, eta aldakortasun horren arrazoi bakarra prezioak berrikusteko klausulen aplikazioa denean –bilakaeraren indize objektiboak erreferentziazat harturik–, lehen urteari dagokiona kapitalizatuko da. Aldakortasun hori beste zirkunstantzia batzuegatik gertatzen bada, eta haien arrazoi matematikoa emakida gauzatzen den unean ezagutzen bada, kapitalizatuko den zenbatekoa emakidadunak emakidak dirauen bitartean ordaindu behar dituenen urteko batez bestekoa izango da.

³² Artikulu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 5. artikulua aldatu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez.

³³ Apartatu hau abenduaren 16ko 18/2014 FORU ARAUAren 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Foru araua 2014/12/20ean sartzen da indarrean.

³⁴ 3. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 5. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/12/28ko GAO).

c) Emakidadunak Administrazioari ondasun jakin batzuk itzuli behar badizkio, ondasun horiek itzulketa egunean duten kontabilitate balio garbia eta itzulketarako aurreikusita dauden gastuak konputatuko dira. Ondasunen kontabilitate balio garbia kalkulatzeko, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako onartutako amortizazio taulak aplikatuko dira. Hain zuzen ere, horietatik ateratzen den batez besteko portzentajea aplikatuko da.

4.³⁵ Emakidaren izaeragatik oinarri ezargarria aurreko apartatuan jasotako erregelen bidez zehazterik ez dagoen kasu berezietan, honako erregelak betez zehaztu beharko da:

a) Kasuan kasuko ustiapen, erabilera edo aprobetxamenduari lotutako aktibo finkoen balioari emakidaren iraupen-urte bakoitzeko %2ko portzentajea aplikatuko zaio; gutxienekoa %10ekoa izango da, eta gehienekoa ez da handiagoa izango aktiboen balioa baino.

b) Aurreko baloraziorik ez badago, dena delako administrazio publikoak adierazitakoa hartuko da kontuan.

c) Aurreko bi erregelen faltan, interesatuek aitortutako balioa ezarriko da, Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan jasotako bideak erabiliz aipatu balioa egiaztatzeko duen eskubidea eragotzi gabe.

15. artikulua.

1. Domeinua konsolidatzerakoan, jabe hutsak zerga honegatik ordainduko du bere ondarean sartzen den eskubidearen balioa kontutan hartuz.

2. Zergari lotutako kontratu agintze eta aukerak hauei parekatuko zaizkie, oinarri bezala hitzartutako salneurri berezia hartuz, eta honen faltan, edo tikiagoa balitz, kontratu horiei egozgarri zaien oinarriaren %5^a.

3. Retro klausuladun eskubide eta ondasunen oinarritzat aitortutako salneurria hartuko da haien balio egiaztatuaren bi herenen berdina edo handiagoa balitz. Atzeratzeko eskubidearen eskualdaketan, balio horren hirurena, aitortutako salneurria handiagoa ez den kasuan salbu.

Retrakto eskubidea erabiltzen denean atzeratutako eskubide edo ondasunen balio egiaztatuaren bi herenak erabiliko dira oinarritzat, beti ere atzeramenduaren salneurriaren berdina edo handiagoa denean.

4. Errolda enfiteutiko eta erreserbagarrien osaketetan, gai honegatiko likidaketari erasan gabe, ondasunek duten balioagatik uzteari dagokionagatik jiratuko da, haien kapitala kenduz.

5. Transakzioetan zerga eskubide edo ondasun litijiosoak adjudikatu, aitortu edo errekonozitzen diren tituluaren arabera likidatuko da, eta hura konstaraziko ez balitz, kargadun eskualdaketa kontzeptuan.

³⁵ 4. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako seigarren xedapenaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

6. Biziarteko edo behin-behineko pentsioen ordezeko ondasun lagapenetan, lagapenaren ondorioetarako finkatutako oinarri ezargarria pentsioarena baino %20 eta 12.020,24 euro handiagoa denean, bi oinarriak bat datozen balioarekin egingo da ondasun emailearen likidazioa, eta beste likidazio bat egingo zaio sortutako diferentziagatik, musu truke lortutako ondare gehikuntza gisa³⁶.

16. artikulua.³⁷

Bahiaren, hipotekaren edo antikresiaren hartzekodunaren eskubideetan subrogatzea eskubide eskualdaketatzat hartuko da, eta 11.1.f) artikuluan ezartzen den tasaren arabera zergapetuko da.

17. artikulua.³⁸

1.³⁹ Kreditu edo eskubideak eskualdatzen badira horien erabilerarekin dirutan baloratu daitezkeen ondasun jakin batzuk eskuratzeko, ondasun eta eskubide horien eskualdaketei dagozkien kontzeptu eta tasa berdinen arabera exijituko da zerga. Aldiz, eraikitzen ari diren ondasun higiezinaren kasuan, oinarri ezargarria kreditua edo eskubidea eskualdatzen den unean ondasunak duen balio erreala izango da. Gainera, ezingo da izan lagapenagatik ordaindutako kontraprestazioaren zenbatekoa baino txikiagoa.

2. Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako edo onartu gabeko baloreen eskualdaketak Balio Erantsiaren gaineko Zergan edo Zerga honen “ordain trukeko ondare eskualdaketen” modalitatean tributatzetik salbuetsita daudenean, eta halaber, balore horiek lehen mailako merkatuetan eskuratzen direnean lehentasunezko harpidetza eskubidea eta obligazioak akzio bihurtzeko eskubidea erabilita, ondasun higiezinaren ordain trukeko eskualdaketa gisa tributatu dute aipatu modalitatean, foru arau honek 41. artikuluan 1. apartatuko B letraren 25. zenbakian ezarritako kasu eta baldintzetan.

3. Mailegu baten berme gisa fidantzak eta hipoteka, prenda nahiz antikresi eskubideak eratzean, mailegu kontzeptuagatik soilik ordainduko da zerga.

³⁶ 6. apartatu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 6. artikulua gehitu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez.

³⁷ Artikulu hau abenduaren 16ko 18/2014 FORU ARAUAREN 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Foru araua 2014/12/20ean sartzen da indarrean.

³⁸ 17. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Hiru apartatuak berriro datu du, 2000ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

³⁹ 1. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/12/28ko GAO).

4. Kreditu kontuak, zor aitorpena eta gordailu ordaindua mailegu pertsonal moduan likidatuko dira, eta hala badagokio, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

Mailegu eragiketa egiteko moduagatik zenbatekoa hasieratik finkatu ezin denean, kreditu kontuetan gertatzen den bezala, kreditua urtez urte likidatzean edo, eragiketa amaituz gero, likidatu baino lehenago egingo da likidazioa.

II. TITULUA: ERAGIKETA SOZIETARIOAK

I. Kapituluak: Zerga-gaia

18. artikulua. ⁴⁰

1. Zergari lotutako sozietate eragiketak dira:

1.- Sozietateen eraketa, haien kapitalaren gehikuntza eta murrizpena, eta sozietateen desegitea.

2.- Kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkideen ekarpenak.

3.- Sozietate baten benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Gipuzkoako lurralde historikora aldatzea, ez bata eta ez bestea aurretik Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta egon ez bada.

2. Ez dira zergari lotuta egongo:

1.- Sozietateak berregituratzeko eragiketak.

2.- Sozietateen benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

3.- Sozietate baten eraketa eskritura edo estatutuak aldatzea, eta, bereziki, sozietate baten xede soziala aldatzea, eraldatzea edo iraupen epea luzatzea.

4.- Akzio jaulkipeneko primaren bidez bakarrik eratutako erreserbaren kargura kapitala gehitzea.

3. Sukurtsal edo establezimendu iraunkorren bidez beren jardunari lotutako eragiketak Espainiako lurraldean egiten dituzten entitateen kasuan, eta haien helbide soziala eta benetako zuzendaritzako egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan dagoenean, entitate horiek beharturik daude entitate

⁴⁰ Artikulu hau hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

espainiarrek ordaindu beharreko kontzeptu eta baldintza berdinetan tributatzera, aipatu eragiketei destinaturiko kapitalari dagokionez.

4. Helbide soziala eta benetako zuzendaritzako egoitza Espainia ez den Europar Batasuneko estatu kide batean duten entitateak ez dira lotuta egongo sozietate eragiketen modalitateari, sukurtsalen edo establezimendu iraunkorren bidez Gipuzkoako lurraldean egiten dituztenean beren trafiko eragiketak. Ez dira karga horri lotuta egongo, aipatu eragiketak direla-eta, benetako zuzendaritzako egoitza Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan duten entitateak ere, baldin eta horien helbide soziala Espainia ez den Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta badago.

19. artikulua.⁴¹

Sozietate eragiketen gaineko kargaren ondorioetarako, sozietateak berregituratzeko eragiketatzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/96 Foru Arauak 90. artikulua 1., 2., 3. eta 5. apartatuetan eta 101. artikuluan jasota dauden sozietate bategite, bereizte, aktibo jartze eta balore trukatzeko eragiketak.

20. artikulua⁴².

Zerga honen ondorioetarako elkarrekin parekatuko dira honako hauek:

1. Irabazizko helburua duten pertsona juridiko ez sozietarioak.
2. Partaidetza kontuen kontratuak.
3. Itsasuntzien jabekidetzak.
4. "Inter vivos" egintzaz sortu eta enpresa-ihardueretan aritzen den ondasun-elkartea, Pertsona Fisikoen Errenta gaineko Zergari buruzko Foru Arauak xedatutakoaren kaltetan gabe.
5. "Mortis causa" egintzaz sortu edo osatutako elkartea bera, sortzailearen negozioaren ustiapena zatiezinezko errejimenean hiru urte baino epe luzeago batez jarraitzen denean. Dena dela, aipatu epea iragan baino lehenago deusezten bada egokituko zaion itzulketa-eskubidearen kaltetan gabe egingo da likidazioa.

⁴¹ Artikulu hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primeren gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁴² Artikulu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 7. artikulua aldatu du 1992ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokienez.

II. Kapituluia: Subjektu pasiboa

21. artikulua.⁴³

Zergadun gisa, aldeek aurka jarritako baldintzak edozein izanik ere, zerga ordaintzera behartuta egongo dira:

a) Sozietatea bera: Sozietateak eratzean, kapitala gehitzean, benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean eta kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkide ekarpenak egitean.

b) Bazkideak, jabekideak, komuneroak edo partaideak: Sozietateak desagitean eta kapital soziala murriztean, haiek jaso dituzten ondasun eta eskubideak direla-eta».

22. artikulua.⁴⁴

Subsidiarioki zerga ordaintzeaz erantzungo dute, sozietateak eratzean, kapital soziala gehitu eta murriztean, kapital soziala gehitzea ez dakarten bazkide ekarpenak egitean, sozietatea desagitean eta benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean, zergari loturiko egintza juridikoan partaide izan diren eragile, administratzaile edo likidatzaileek, betiere erakarritako kapitalaren kargu egin badira edo ondasunak eman badituzte.

III. Kapituluia: Oinarri ezargarria

23. artikulua.⁴⁵

1. Nolabait bazkideen erantzukizuna mugatzen duten sozietateen kapital sozialaren eraketa eta gehikuntza egitean, oinarri ezargarria hasiera batean finkatzen den kopuru nominalaren berdina izango da, edo geroago gehitzen denarena, eskatutako jaulkipen primak gehituta, hala badagokio.

⁴³ Artikulu hau Apartatu hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikulua aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu eraginak.

⁴⁴ Artikulu hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarilaren 1etik aurrera sortzen ditu eraginak.

²⁶ Artikulu hau urtarilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAOn). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2. Aurretik aipatutakoak ez diren beste sozietate batzuek eragiketak egitean eta kapital soziala gehitzea dakarten bazkide ekarpenak egitean, oinarri ezargarria ekarpenaren balio garbia izango da; balio garbitzat hartzen da jarritako ondasun eta eskubideen balio erreala, horri gutxituta gastu eta karga kengarriak eta ekarpena dela-eta sozietatearen kargu geratzen diren zorren balioa.

3. Benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala lekuz aldatzean, benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala tokiz aldatzen duen sozietateak lekuz aldatzea erabakitzen duen egunean daukan hartzeko likidoa izango da oinarri ezargarria.

4. Kapitala murriztean eta sozietatea desegitean, oinarri ezargarria bazkideei emandako ondasun eta eskubideen balio errealaren berdina izango da, gastuak eta zorrak kendu gabe.

IV. Kapitulua: Zerga kuota

24. artikulua.⁴⁶

Likidazio oinarriari %1eko karga mota aplikatuz aterako da zerga kuota.

III TITULUA: EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUAK

I. Kapitulua: Printzipio orokorrak

25. artikulua.

1. Kargari lotzen zaizkio, jarraiko artikulutan aurrakusten diren hitzetan:

a) Notaritzako dokumentuak.

b) Merkatal dokumentuak.

c) Dokumentu administratiboak.

2. Zerga kuota finko edo algarri bidez ordainduko da, formaldu, eman edo luzatzen den dokumentuak, indarrean dagoen bitartean baloragarri den kopuru edo gairik duen ala ez kontutan izanik.

II. Kapitulua: Notaritzako dokumentuak

26. artikulua.

Eskriturak, aktak eta notaritza lekukotasunak egongo dira loturik 29. artikulua ezartzen dituen hitzetan.

⁴⁶ Artikulu hau urtarilaren 17ko 2/1989 Foru Dekretuaren 4. artikulua aldatu du 1989ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu honek 1989rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 37/1988 Legean jasotako neurrietara egokitzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia.

Kopia soilak ez zaizkio zergari atxekiko.

27. artikulua.⁴⁷

1. Zuzeneko gaitzat gauza edo kopuru baloragarria duten eskrituren lehen kopietan aitortutako balioa erabiliko da oinarri gisa, egiaztapen administratiboari eragotzi gabe. Bermerako ondasun eskubideetan eta mailegu bermedunak dokumentatzen dituzten eskrituretan oinarri ezargarria obligazioaren edo kapital bermatuaren zenbatekoa izango da, barne sartuta interesengatik, kalte-ordainengatik, ez-betetzeagatik zigorrengatik edo antzeko beste kontzeptuengatik aseguratzen diren kopuruak. Bermatutako kopuruaren zenbatekoa espresuki jasota ez badago, kapitala eta hiru urtetako interesak hartuko dira oinarritzat.

Hipotekak edo beste edozein berme-eskubide mailaz aldatu eta maila hobetzean, oinarri ezargarria maila okertzen duen eskubideari emandako erantzukizun osoaz osatuta egongo da. Maila berdintzean, aldiz, lehendabizi finkatutako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren zenbateko osoaz osatuta egongo da oinarri ezargarria.

2. Akta notarialetan aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera jokatu da. Protesto-aktetan, aitzitik, oinarria protestaturiko agiriaren edo protesta eragin duen kopuruaren ageriko balioaren herena izango da.

3. Egintzaren gaia ez-baloragarria dela ulertuko da oinarriaren zenbatekoa ezin denean erabaki indarraldi osoan, ez eta amaitzerakoan ere. Egintza gauzatzean zenbateko hori ezin bada finkatu, gai ez-baloragarria balitz bezala exijituko da zerga, zenbatekoa erabakita gelditzen denean likidazioaosatzea eragotzi gabe.

28. artikulua.⁴⁸

Subjektu pasiboa ondasun edo eskubidearen hartzailea izango da eta, bere faltan, notaritzako dokumentuak eragin edo eskatzen dituztenak, edo beren mesedetan luzatzen diren haiek.

Hipoteka bermea duten mailegu eskriturak direnean, mailegu hartzailea hartuko da subjektu pasibotzat.⁴⁹

⁴⁷ 27.artikulu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAREN 122.artikuluak aldatu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁴⁸ Artikulu hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 5. Artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

29. artikulua.

1. Akta notarialen jatorrizkoak eta kopiak, hala nola lekukotzak, orri bakoitzeko 0,150253 euroko paper zigilatuan egingo dira beti ere. Kopia bakunak ez dira zergari lotuta egongo.⁵⁰

2.⁵¹ Eskrituren eta akta notarialen lehen kopiak, gainera, 100eko 0,5eko tasaren arabera zergapetuko dira, baldin eta kopuru edo gauza baloragarri bat baldin badute xedea, Jabetzaren, Merkataritzaren edo Ondasun Higigarrien Erregistroetan inskribatu daitezkeen egintza edo kontratuak jasotzen badituzte, eta egintza edo kontratu horiek ez badaude lotuta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo foru arau honen 1.1. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan sartutako kontzeptuei, egintza edo kontratu horiei dagokienez. Protesto akten kopiei tasa hori bera aplikatuko zaie.

III. Kapitulua: Merkataritzako dokumentuak

30. artikulua.

1. Aldaketa letrak eta jiro funtsa egin edo hauek ordezkatzan dituzten dokumentuak atxekitzen zaizkio.

2. Dokumentu batek jiro funtsa egiten duela ulertuko da fondo igortzea edo zeinu baliokidea leku batetik bestera igortzea kreditatzen duenean edo ordainketa agindu bat suposatzen duenean nahiz eta hau gertatu den leku berean, edo bertan “a la orden” klausula agertzen bada.

31. artikulua.

1. Libratzailea dago ordaintzera behartuta, aldaketa letra atzerrian luzatua bada salbu, kasu honetan lehen edukitzailea egongo delarik behartuta, honek bere ohizko egoitza edo egoitza fiskala Gipuzkoan balu.

2. Jiro dokumentuak edo aldaketa letren ordezkoan kargatzen dituen zergaren subjektu pasiboak haiek luzatzen dituzten pertsona edo erakundeak izango dira.

32. artikulua.

⁴⁹ Paragrafo hau apirilaren 15eko 3/2021 FORU ARAUAREN 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartu ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2021/04/21eko GAO).

⁵⁰ 1. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1994rako Aurrekontua onartzen duen martxoaren 2ko 1/1994 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriak aldatu du, 1994ko martxoaren 7tik aurrerako ondorioekin.

⁵¹ 2. apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN 5. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/12/28ko GAO).

Zergaren ordainketaren erantzule solidarioa aurreko artikulua dituen efektuen kobrantza edo negoziaketan parte hartzen duen erakunde edo pertsona oro izango da.

33. artikulua.

1. Aldaketa letran oinarritzat jiratutako kopurua erabiliko da.
2. Aldaketa letren bentzimendua bere luzapen datatik kontatutako sei hilabetetik gorakoa denean, oinarriaren bikoitzari dagokion zerga esijituko da.

Ekitaldi edo negozio juridiko bati dagokion aldaketa letraren ordeztu, zergaren gutxitze bat sortuz, bi letra edo gehiago luzatuko balira, dagozkien oinarrien batuketara izango da egoki, alde esijitu asmoz. Ez da aipatu zatikatzea burututzat joko efektuen bentzimendu daten artean hamabost egun baino gehiagoko aldea dagoenean edo dokumentu bidez mailakatutako jiroz epekako kobrantza hitzartu denean.

3. Aurrez finkatutako arauak jiro funtsa egin edo aldaketa letrak ordezkatzeko dituzten dokumentuei ere egotziko zaie, artikulua honetako 2 ataleko lehen letrakadak jasotako salbuespenarekin.

34. artikulua.

1. Ganbio letrak zenbatekoaren arabera motako agiri zigilatuan egingo dira derrigorrez. Ganbio letrak behar baino zenbateko txikiagoko agiri zigilatuan eginez gero, legeetan emandako eraginkortasuna galduko dute letrak. Zerga ondoko mailaketaren arabera ordainduko da:

Oinarri likidagarria/ euroak.	Kuota/euroak.
4,04 euroraino	0,06
24,05tik 48,08ra	0,12
48,09tik 90,15ra	0,24
90,16tik 180,30ra	0,48
180,31tik 360,61ra	0,96
360,62tik 751,27ra	1,98
751,28tik 1.502,53ra	4,21
1.502,54tik 3.005,06ra	8,41
3.005,07tik 6.010,12ra	16,83
6.010,12tik 12.020,24ra	33,66

12.020,25tik 24.040,48ra	67,31
24.040,48tik 48.080,97ra	134,63
48.080,98tik 96.161,94ra	269,25
96.161,95etik 192.323,87ra	538,51

192.323,87 gorako zenbatekoak direnean, 6,01 edo zati bakoitzeko 0,018030 eurotan likidatuko da, eta beti ere eskudirutan ordainduko da. Epe barruan aurkeztu edo likidatu ezean, legeetan emandako eragin indarra galduko da.”

2. Giro gisa balio duten edo ganbio letrak ordezkatzeko dituzten agiriengatik eskudirutan ordainduko da zerga, karga mailaketaren arabera.⁵²

3. Foru Diputazioak efektu tinbratuen ordezkari ordaintzeko baimena eman ahal izango du, merkataritza trafikoaren edo bere mekanizatzeko prozeduraren ezaugarriek hala esijitzen dutenean, dokumentua eta berari dagokion sarrera ongi identifikatzeko neurri egokiak hartuz, horrek bere exekuzio eraginkotasunaren galerarik sortuko ez duelarik.

35. artikulua.⁵³

Erregelamenduz ezarriko dira efektu tinbredunen forma, estantazioa, mota, ezaugarriak eta zenbakiak, haien tinbratze zuzena lortzeko kasuak eta prozedura, efektu horiek trukatzeko baldintzak eta haiek baliogabetzeko modua.

36. artikulua.

1. Merkatal dokumentuen luzapenetan zerga ordaintzeak beraietan edukitako klausula guztiak estaltzen ditu, kontzeptu horretan ordaindu beharrekoan.

2. Atzerrian luzatutako aldaketa letrak dirutan sartuko ditu lehen hartzaileak.

IV. Kapituluak: Dokumentu administratiboak

37. artikulua.⁵⁴

⁵² 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1998rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 7/1997 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriak aldatu du, 1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁵³ Articulo hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

⁵⁴ Artikulu hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 FORU ARAUAREN 7. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zerga iruzurraren aurkako neurriak, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoak onartzen ditu. Foru Arau argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/07/22ko GAO).

Erregistro publikoetan egiteko luzatzen diren ohar prebentiboak zergari lotuta daude, gaitzat eskubide edo interes baloragarri bat dutenean eta ofizioz agindu gabe eta aginte judizialaren edo administratiboak alderdi gisa esku hartu gabe gertatzen direnean.

38. artikulua.

Ordainketara behartuak daude zergadun gisan oharrak eskatzen dituzten pertsonak.

39. artikulua.

Oinarritzat bermatu, argitaratu edo osatzen den interes edo eskubidearen balioa erabiliko da.

40. artikulua.

Erregistro Publikoetan burutzen diren ohar aurreartzaileek dirutan likidatuko den % 0,50 karga mota ordainduko dute.

IV TITULUA: XEDAPEN AMANKOMUNAK

I. Kapitulua: Zerga onurak⁵⁵

⁵⁵ * Abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUaren bigarren xedapen gehigarriak aurrezki kutxen berregituratze eragiketei Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zengan aplikatzen zaien zerga erregimena ezarri du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO). Ezarritako zerga erregimena ondorengoa da :

«Bigarrena. Aurrezki -kutxen berregituratze eragiketei Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zengan aplikatzen zaien zerga erregimena.

Bat. Ondoren aipatzen diren aktibo eta pasibo eskualdaketek, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauak, uztailaren 4koak, bere 90. eta 101. artikuluetan aipatzen dituen eragiketekin bat ez badatoz ere, hauen ondorio berberak izango dituzte Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, baldin eta emaitza ekonomikoak baliokideak badira:

a) Finantza bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio obligazioei buruzko 13/1985 Legeak, maiatzaren 25ekoak, 8. artikulua 3. apartatuko d) letran aipatzen duen babes sistema instituzional bat eratzeko eta handitzeko egindakoek.

b) Kreditu entitateak berregituratzeko prozesuetan egindakoek, baldin eta Bankuen Berregituratze Ordenaturako Fondoak esku hartuta egin badira 9/2009 Errege Lege-Dekretuak, ekainaren 26koak, bankuen berregituratzeari eta kreditu entitateen baliabide propioak indartzeari buruzkoak, 7. artikuluan aipatzen duen moduan.

Bi. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan salbuetsirik egongo dira Aurrezki -Kutxen gobernu organoei eta erregimen juridikoaren beste alderdi batzuei buruzko 11/2010 Errege Dekretu Legeak, uztailaren 9koak, bere 7. artikuluko 3. apartatuko lehen paragrafoan aipatzen dituen eragiketak formalizatzeko beharrezko egintzak eta dokumentuak, baldin eta eragiketa horien egileak 13/1985 Legeak, maiatza-ren 25ekoak, 8. artikuluko 3. apartatuko d) letran ezartzen dituen baldintzetan babes sistema instituzional bat eratzeko kreditu erakundeak edo taldeko erakundeak badira.

41. artikulua.

I. Kasu bakoitzean Foru Arau honetako 1 artikulua dagokien hiru karga moduei egozgarri izango zaizkien zerga onurak jarraikoak izango

A)⁵⁶ Ondoko hauek daude zergatik salbuetsita:

a) Estatua eta lurralde nahiz erakundetako herri administrazioak eta horien ongintza, kultura, gizarte segurantz, irakaskuntza eta helburu zientifikoduneko ezarpenak.

Salbuespen hori Tren Azpiegituren Administrazio Orokorrei eta RENFE-Operadoreari ere aplikatuko zaie.⁵⁷

b)⁵⁸ Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak, 4. artikuluan aipatzen dituen irabazi-asmorik gabeko entitateak, zerga araubide berezira foru arau horren 16. artikuluan jasotako eran biltzen direnean.

c)⁵⁹ Aurrezki kutxak eta banku fundazioak, gizarte ekintzarako egiten dituzten eskuraketengatik.

Era berean, zerga horretan salbuetsirik egongo dira kontratu akordioak, babes sistema instituzionala osatzen duten erakundeen artean 13/1985 Legeak, maiatzaren 25ekoak, 8. artikuluko 3. apartatuko d) letran aipatzen dituen elkarrekiko kaudimen, likidezia eta emaitzak komunean jartzeko konpromisoak finkatzekoak, akordio horietan formalizatzen diren dokumentuak bezalaxe.»

* Eta aipatutako 5/2010 FORU ARAUaren xedapen iragankorraren 1. zenbakiak aurrezki kutxak berregituratzeko eragiketei ondorengo erregimen iragankorra ezartzen die :

«Aurrezki -kutzak berregitura-tzeko eragiketen erregimen iragankorra.

1. Foru arau honetako bigarren xedapen gehigarrian xedatzen dena 2010eko uztailaren 14tik aurrera aplikatuko da.

Hala eta guztiz, dagoeneko eginda dauden eragiketei dagokienez aplikatu egingo zaie, halaber, data horretan eratuta dauden kreditu erakundeak babesteko sistema instituzionalei.»

⁵⁶ A) letra hau irabazirik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren zerga onurari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUaren hirugarren xedapen gehigarriak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak. (GAO 2004-04-19).

⁵⁷ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUaren 8. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

⁵⁸ Letra honi otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 5. artikuluko bat apartatuak sartu dio edukia. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

⁵⁹ Letra hau abenduaren 16ko 17/2014 FORU ARAUaren lehenengo xedapen gehigarriaren 5. apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga egokitzapen batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Foru araua argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean. Aldaketak 2014/01/01etik aurrera ditu ondorioak.

d)⁶⁰ Eliza Katolikoa eta Espainiako estatuarekin lankidetzak akordioak sinatuak dituzten elizak, konfesioak eta erlijio elkarteak.

e) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta haren barneko erret akademiak eta Euskaltzaindiaren antzeko helburuak dituzten autonomia erkidegoetako instituzioak.

f) Espainiako Gurutze Gorria eta ONCE (Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala).

g)⁶¹ Araudiari jarraituz sortutako merkataritza sozietate publikoak. Salbuespen hau ez zaie aplikatuko aipatu merkataritza sozietate publikoek egindako sozietate eragiketei.

h)⁶² Parlamentuan ordezkartza duten alderdi politikoak.

B) Exenzioa izango dute:

1. Espainiako Estatu berretsitako Nazioarteko Hitzarmen edo Konbenioz exentzioa emana gertatzen den eskualdaketa eta gainerantzeko egintza eta kontratuetan.

2. Legezko erretraktuz egiaztatzen diren eskualdaketek, hura bere kontra zuzentzen zaion hartzaileak zerga iada ordaindua duenean.

3.⁶³ Ezkontideek ezkontzako sozietatera egindako ondasun eta eskubideen ekarpenek, beren alde eta haien ordainetan deuseztatzerakoan egindako esleipenak eta hori dela-eta ezkontideei egindako eskualdaketak.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko paragrafoan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikotekideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei dagokienez.⁶⁴

⁶⁰ Letra honi otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 5. artikuluko bat apartatuak sartu dio edukia. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

⁶¹ Letra hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen, martxoaren 27ko, 4/2007 FORU ARAUAren zazpigarren xedapen gehigarriak geitu du (2007-04-13ko GAO). GAOan argitaratu ondorengo egunean sartzen da indarrean.

⁶² Letra honi otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUAren 5. artikuluko bat apartatuak sartu dio edukia. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

⁶³ 3.zenbaki hau izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzko abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUAren 7.artikuluak aldatu du. Foru arau hau 2004ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. Halere, aplikazioa zergadunarentzat onuragarriagoa denean, 2003ko maiatzaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO 2003-12-22).

⁶⁴ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAren 8. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

4. Ondasunen salneurria osatzen duen diru entregak edo zerbitzu pertsonal, mailegu edo kalteordain ordainetan egiaztatzen direnek. Kreditu eta Aurrezte Erakundeek, hipotekazko maileguen eskritura burutzen egindako zenbateko entregak, bere zerga behar bezala likidatua edo exentzio egokia aitortua izan denean.

5. Estatuak eta Lurralde eta Erakunde Administrazio Publikoek interesik gabe emandako aurrerakinek.

6. Konzentraketa partzelarioek, landa finketako derrigorrezko permutek, behar bezalako baimena jasotako borondatezko permutek, landa errentetako legeditik eratorritako jabetza pribaturako irisbidekoek eta Nekazal Erreforma eta Garapenerako Institutoak labore pertsonal eta zuzeneko errejimenean laborarien alde egindako adjudikazioek eragindako eskualdaketa eta gainerantzeko egintzak, bere legedia zehatzaren arabera.

7.⁶⁵ Jardun unitateko jabeek hitzarmen batzarrei egindako ekarpenaren ondorioz eta batzarrek beraiek terrenoen proportzioan aipatu jabeek egindako esleipenen ondorioz egiten diren terreno eskualdaketak.

Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzetan birpartzelatzeak eragindako egintza eta kontratu berberak.

Aurreko kasuetako edozeinetan, jabe bati esleituriko lurren balioa proportzionalki berak ekarritako lurrei dagokiena baino handiagoa denean, soberakinari dagozkion likidazioak egingo dira.

Salbuespen hau hirigintzako legediak ezarritako baldintza guztiak betetzeari lotuta dago.

8. Tutoreek beren karguetan aritzearen garantian aurkezten dituzten bermeei dagozkien egintzek.

9. Hipoteka merkatua arautzen duen legedia berezian ezarritako baldintzak betetzen dituzten hipotekazko zedulek eta bonoek.

10.⁶⁶ Aurreko 18. artikulua 2. apartatuko 1., 2. eta 3. zenbakietan eta 4. apartatuan aipatutako sozietate eragiketak, kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen modalitateetan dagokien karga dela-eta.

⁶⁵ Zenbaki hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 4. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁶⁶ Zenbaki hau urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Arauaren 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Dekretu Arauak honako zergak aldatzen ditu: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primaren gaineko Zerga. (GAO 2009-01-16; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO). Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartu zen indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

11.⁶⁷ Etxebizitzen lehen eskualdaketa dokumentatzen duten eskritura notarialen lehen kopiak, notaritzako agiriei egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikagarri zaien eta foru arau honen 29.2 artikuluan aipatzen den karga tasari dagokionez.

12.⁶⁸ Orubeak eskualdatzea eta azalera eskubidea babes publikoko etxebizitzen erregimeneko eraikinak altxatzeko lagatzea; babes publikoko etxebizitzen sustapen, eraikuntza edo lehen eskualdaketaekin lotutako egintzak eta kontratuak formalizatzeko emandako eskritura publikoak egintza juridiko dokumentatuen gaineko kargari dagokionez; babes publikoko etxebizitzen jabariaren bizien arteko lehen eskualdaketa, baldin eta hori behin betiko kalifikaziotik hurrengo sei urteren barnean egiten bada; hipoteka maileguak edo eraikuntzarako ez eskatuak behin betiko kalifikazioaren aurretik; xede bakartzat babes publikoko erregimeneko eraikinak sustatzea edo eraikitzea duten sozietateen eraketa, kapital zabalkuntza, eraldaketa eta bat-egitea.

Orubeen eskualdaketa eta azalera eskubidearen lagapenari dagokienez onura aitortzeko, beharrezkoa izango da dokumentuan jasotzea edo hori aurkeztean espresuki adieraztea, alde batetik, kontratua babes publikoko etxebizitzak eraikitze helburuarekin egiten dela eta, bestetik, ondoriorik gabe geratuko dela baldin eta aitorten horretatik hiru urte igarotzen badira behin-behineko kalifikazioa lortu gabe edo, edozein unetan eta edozein arrazoî dela tartean, eraikuntza proiektu hori gauzatzetik ez badago.

Salbuespena behin-behinik emantzat joko da, betiere etxebizitza mota honetarako indarrean dauden xedapenek kasu bakoitzean exijitutako beharkizunak betetzera baldintzatuta.

Salbuespena behin-behinik onartzea eragin zuten baldintzak betetzen ez badira, edo salbuespena indarrik gabe geratzen bada, interesatuak hasieran egindakoaren autolikidazio osagarri bat aurkeztu beharko du, bidezko berandutza interesak sartuta, ez-betetzea gertatu eta ondorengo hogeita hamar eguneko epean.

Aipatu autolikidazioa ez aurkeztea dokumentua ez aurkeztearekin parekatuko da, zigorra exijitzearen ondorioetarako.

Babes publikoko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan, etxebizitzak eta horiei lotutako eranskinak bakarrik sartzen direla ulertuko da.

⁶⁷ 11. zenbaki hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren 5. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009.eko abenduaren 29an sartzen da indarrean eta 2010.ko uztailaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2009/12/28ko GAO).

⁶⁸ Zenbaki hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua zortzi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

13.⁶⁹ Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek beren eskumenetan aritzean egin edo gaitzen dituzten babes publikoko etxebizitzak eskualdaketek.

Salbuespen hau aplikatuko da babes publikoko etxebizitzak eskuratu eta esleitzeko prozedurei buruzko araudian oinarrituta partikularren artean babes publikoko etxebizitza bat eskualdatzen denean ere, Eusko Jaurlaritzak eskuratzaileria izendatu badu.

14. Konfiskaturiko ondareen itzulketa egintzak formaltzeko emaniko eskritura publikoek, dela zuzenean edo tartejarritako erakunde bidez, beti ere, azken kasu honetan, konfiskaturiko ondasunaren pertsona fisiko edo juridiko titularra eta tartejarritako erakundearen harremana kredita baldin badaiteke.

15. Eskualdaketek eta gainerantzeko egintzek beren helburu bakartzat zerga ordaindu duten eta bere ezizateak edo baliogabetasunak jota egon daitezkeen aurreko beste egintzen eragikortasun gabezia salbatzea dutenean.

16.⁷⁰ Sozietate eraketak, kapital gehikuntzak, bazkideek kapitala gehitu gabe egiten dituzten ekarpenek eta, azkenik, sozietate baten benetako zuzendaritzako egoitza edo helbide soziala Gipuzkoako lurralde historikora aldatzeak, ez bata eta ez bestea aurretik Europar Batasuneko estatu kide batean kokatuta egon ez bada.

17.⁷¹ Diruz egindako gordailuak eta maileguek, edozein dela ere gorpuzteko era, bai eta pagarez, bonoz, obligazioz edo antzeko tituluz aurkeztuak barne. Salbuespena, era berean, depositoa edo mailegua dokumentatzen duten ondorengo eskualdaketari ere zabaldu egingo zaio, bai eta pagare, bono, obligazio eta, gehienez ere hamazortzi hilabetez seriean igorritako antzeko beste tituluetan eragiten duten egintza juridiko dokumentatuen gaineko karga ere, horiek baldin badira besteren kapitalen ordezkatzaileria eta hauengatik kontraprestaziorik ordaintzen baldin bada, epemugan berreskuratzeko agindutakoaren eta jaulkipenean ordainduriko zenbatekoaren arteko aldearen parekoa, industri edo negozio bankuek egindako kutxako bonoen bidez ordezkaturako maileguak barne.

18.⁷² Uztailaren 29ko 26/1988 Legeak aipatzen dituen finantza errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresen alde egiten diren eraikuntza

⁶⁹ Zenbaki hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 4. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak (2008-07-11ko GAO).

⁷⁰ Zenbaki hau abenduaren 16ko 6/2010 FORU DEKRETU-ARAUAren 1. artikulua aldatu du. Aipaturako foru dekretu-arauak Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta zerga berezien araudian aldaketak sartzen ditu. Foru dekretu-araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2010/12/24ko GAO) eta 2010eko abenduaren 3tik aurrera ditu ondoriak.

⁷¹ 17. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 1999rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 21eko 7/1998 Foru Arauaren 5. xedapen gehigarriak aldatu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁷² Zenbaki hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAren 4. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu

eskualdaketak, eskualdatutako horiek, ondoren, eskualdatzailea ez den beste pertsona bati errentamenduan emateko, erosteko aukerarekin, betiere eragiketa horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita daudenean.

Onura hau eduki ahal izateko, nahitaezko beharkizuna izango da eskualdatzailearen, eskuratzailaren edo errentariaren artean zuzeneko edo zeharkako lotura harremanik ez egotea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16. artikulua 3. apartatua ezarritakoaren arabera.

19. Motor mekanikoa duten bigarren eskuko ibilgailuen eskualdaketek, eroslea berauen salerosketan diharduen enpresaria denean eta saltzeko erosten dituenen.

Ematen zaion exentzio honek behin behineko izaera izango du eta behin betikoa izateko erositako ibilgailua eskuratu zenaren datatik urte beteko epean saldu dela egiaztatu behar da.⁷³

20. Gipuzkoako Foru Diputazioaren nekazal sektorearentzako Laguntzen Plangintzaren babesean egindako kontratu eta egintzek.

21.⁷⁴ Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emanda dauden elkarren bermerako sozietateen kapitala eratzea, gehitzea edo murriztea, eta hori formalizatzeko beharrezkoak diren egintzak eta agiriak.

Salbuespen bera aplikatuko zaio Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emanda dagoen elkarren bermerako sozietatearen eta bermearen onura jaso duen bazkidearen arteko harreman juridikoari, bai eta harreman hori formalizatzeko egiten den agiriari ere.

Era berean, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsita egongo da Espainiako Bankuko Erregistro Berezian izena emanda dagoen elkarren bermerako sozietatearen alde edozein berme ematea, aurreko paragrafoan aipatutako harreman juridikoari dagokionez, bai eta berme horiek formalizatzeko egiten diren agiriak ere.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako albuespenen barruan sartzen dira haietan aurreikusitako bermeak berritzea eta deuseztatzea.

eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁷³ 19. zenbaki hau uztailaren 24ko 44/1990 Foru Dekretuaren 2. artikulua aldatu du 1990eko ekainaren 30etik aurrerako ondorioekin. Foru Dekretu honek Estatuaren 1990eko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 4/1990 Legean eta aurrekontu, finantza eta zerga alorreko neurriei buruzko ekainaren 29ko 5/1990 Legean aurreikusten diren zerga neurrietara egokitzen du Gipuzkoako zerga araudia.

⁷⁴ Zenbaki hau maiatzaren 10eko 1/2018 foru arauaren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean (2018/05/17ko GAO).

Aurreko bi paragrafoetan jasotako salbuespenen artean, haietan aurreikusitako bermeen deuseztapena sartuko da

Zenbaki honetako aurreko paragrafoetan aurreikusitako zerga onurak SME Nekazaritzako Kauzioaren Estatu Sozietate Anonimoari ere aplikatuko zaizkio.⁷⁵

22.⁷⁶ Birfidantzamendu sozietateek aurreko zenbakian elkarrekiko bermedun sozietateentzat ezarritako zerga onura berberak izango dituzte, martxoaren 11ko 1/1994 Legeak 11. artikuluan jasotakoaren arabera derrigorrezko helburutzat hartu dituzten jardueri dagokienean.

23.⁷⁷ Hipoteka mailegu eta kredituetan eta hipoteka bermerik gabeko errentamendu, leasing eta renting eragiketetan moratoriak formalizatzeko eskriturak, betiere uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretuaren 18tik 23ra bitarteko artikuluetan salgaien garraio publikoa eta bidaiarien autobus bidezko garraio diskrezionala hartzen dituen sektorerako arautzen den moratoria aplikatuta egiten direnean (uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-Dekretua, ekonomikoa suspertzeko neurriak hartzen dituen Covid-19ak garraio eta etxebizitza gaitan duen eraginari aurre egiteko).

24.⁷⁸ Ondarezko ondasun eta eskubideak itzultzea eta diruz konpentsatzea, abenduaren 15eko 43/1998 Legeak, 1936-1939 bitarteko erantzukizun politikoei buruzko araudia aplikatuz bahitutako ondasun eta eskubideak alderdi politikoei itzuli edo konpentsatzen dizkienak, jasotakoaren arabera.

25.⁷⁹ 1. Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako edo onartu gabeko baloreen eskualdaketa.

⁷⁵ Paragrafo hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAren 8. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

⁷⁶ 22. zenbaki hau Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 21eko 7/1998 Foru Arauaren bostgarren xedapen gehigarriak gehitu du 1999ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁷⁷ Zenbaki hau urriaren 13ko 8/2020 FORU DEKRETU ARAUAren 6. artikulua edukia eman dio. Aipatutako foru dekretu-araua Covid-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean (2020/10/15eko GAO), 2020ko uztailaren 9tik aurrerako ondorioekin.

⁷⁸ 24. zenbaki hau Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 Foru Arauaren 6. artikulua erantsi du, 1999ko maiatzaren 3tik aurrerako ondorioekin.

⁷⁹ Zenbaki hau 2013ko uztailaren 17ko 5/2013 FORU ARAUAren 4. artikulua aldatu du. Foru Arau horrek zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoak onartzen ditu. Foru Araua argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2013/07/22ko GAO). Aldaketaren aplikazioari buruz, honela dio Foru Arauko xedapen iragankor bakarrak:

«XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. BALORE ESKUALDAKETAK ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGIN-TZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAN.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak 41. artikulua 1. apartatuaren B) letraren 25. zenbakian jasotakoa, foru arau honek emandako idazkeran, aplikagarria izango zaie 2012ko urriko 31tik aurrera eginiko balore eskualdaketei.»

2. Aurreko apartatuan xedatutakorik salbuetsita gelditzen dira bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartu gabeko baloreen eskualdaketak, eta foru arau honetan jasotakoari jarraituz zergapetuta geldituko dira ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketa moduan zergari lotuta daudenean eta, balore eskualdaketa horien bitartez, balore horiek ordezkatzeko dituzten entitateen jabetzako ondasun higiezinaren eskualdaketa kargatu duen zergaren ordainketa saihesteko asmoa egon denean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, ulertu behar da, aurkako frogarik izan ezean, ondasun higiezinaren eskualdaketa dagokion zergaren ordainketa saihesteko asmoz jarduten dela kasu hauetan:

a) Kontrola lortzen denean gutxienez aktiboaren 100eko 50a Espainian kokatuta dauden eta jardura enpresarial edo profesionalei atxikita ez dauden ondasun higiezinenez osatua duen entitate bati dagokionez, edo, behin kontrol hori lortuta, entitate horretan edukitako partaidetza kuota handitzen denean.

b) Kontrola lortzen denean gutxienez aktiboaren 100eko 50a Espainian kokatuta dauden eta jardura enpresarial edo profesionalei atxikita ez dauden ondasun higiezinenez osatua duen beste entitate baten kontrola izatea ahalbideratzen duten baloreak hartzen dituen aktiboa duen entitate bati dagokionez, edo, behin kontrol hori lortuta, entitate horretan edukitako partaidetza kuota handitzen denean.

c) Eskualdatutako baloreak sozietate eraketa edo zabalkuntza edo haren kapital sozialaren gehikuntza dela-eta egindako ondasun higiezinaren ekarpenen truke jaso direnean, betiere ondasun horiek ez badiete eragiten jardura enpresarial edo profesionalei eta ekarpen datatik eskualdaketa datara hiru urte igaro ez badira.

3. Balore eskualdaketa zergari lotuta gelditzen bada salbuespenik gabe, aurreko 2. apartatuan jasotakoaren arabera, erregela hauek aplikatuko dira:

1. Aktiboa konputatzeko, ondasun kontabilizatu guztien kontabilitate balio garbien ordezkualdaketa edo eskurapen datan zehaztutako balore errealeak hartuko dira kontuan. Horretarako, subjektu pasiboa behartuta egongo da data horretako aktiboaren inbentarioa egitera eta, Zerga Administrazioak eskatuz gero, berari ematera.

2. Merkataritza sozietateak direnean, aipatutako kontrola lortu dela joko da kapital sozialean zuzenean edo zeharka dagoen partaidetza 100eko 50etik gorakoa denean. Horretarako, sozietate talde bereko gainerako entitateen baloreak ere eskuratzailaren partaidetza gisa konputatuko dira.

3. Higiezinak ondoren amortizatzeko edukitzen dituen sozietateari berari baloreak eskualdatuz gero, zerga ondorioetarako ulertuko da aurreko apartatuko a) edo b) letretan definitutako elusio kasua gertatu dela. Kasu horretan, subjektu pasiboa izango da eragiketa horien ondorioz lehenago aipatutakoaren arabera sozietatearen kontrola lortzen duen akzioduna.

4. Aurreko 2. apartatuan jasotakoaren arabera Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren kostu bidezko ondare

eskualdaketen modalitatean zergapetu beharreko balore eskualdaketen, likidazioa egiteko, zerga horren elementuak aplikatuko zaizkio ondasun higiezin balio errearen zati proportzionalari, balio hori zergaren araudian jasotako erregelen arabera kalkulatu. Horretarako, oinarri ezargarritzat hartuko da:

— Aurreko 2. apartatuko a) letran aipatutako kasuetan, xedapen hau aplikatzeko higiezin gisa konputatu behar diren aktibo-partida guztien balio errearen gaineko zati proportzionala, hain zuzen kontrola lortzerakoan edukitako partaidetza portzentaje osoari dagokiona edo, kostu bidez edo kosturik gabe kontrola lortu ondoren, partaidetza kuota gehitutako portzentajeari dagokiona.

— Aurreko 2. apartatuko b) letran aipatutako kasuetan, oinarri ezargarria zehazteko, bakarrik kontuan hartuko dira gutxienez aktiboaren 100eko 50a jarduera enpresarial edo profesionali atxiki gabeko ondasun higiezin osatua duten ondasun higiezinak.

— Aurreko 2. apartatuko c) letran aipatutako kasuetan, kontuan hartuko da eskualdatutako akzio edo partaidetzei zegokienez garai batean ekarritako ondasun higiezin balio errearen zati proportzionala.

26.⁸⁰ Interes ekonomikoko elkarteak eratu, bazkideak gehitu eta gutxitu, desegin eta likidatzeko egiten diren eragiketak, eta halaber, eraketa hori aurrera eramateko legeko betebeharra diren kontratu eta dokumentuak.

Salbuespen hori bera aplikatuko da, orobat, edozein sozietate, interes ekonomikoko elkarte europarrak, enpresa sozietateak eta enpresa elkarteak barne, interes ekonomikoko elkarte bihurtzeko eragiketetan.

Era berean, zenbaki honetan arautzen den salbuespena aplikatuko da interes ekonomikoko elkarteak beste edozein sozietate merkantil eta, bereziki, interes ekonomikoko elkarte europar bihurtzen direnean.

Zerga onura hau ez da aplikagarria izango ekitaldiaren barruan egiten dituzten jarduerak sozietatearen xedearekin zer ikusirik ez dutenean, kide diren sozietateetan zuzeneko edo zeharkako partaidetzak dituztenean edo, zuzenean nahiz zeharka, beren bazkideen edo hirugarrenen jarduerak zuzendu edo kontrolatzen dituztenean.

27.⁸¹ Enpresen aldi baterako batasunak eratu, zabaldu, murriztu, desegin eta likidatzeko egiten diren eragiketak, eta halaber, beren eraketa aurrera eramateko legeko betebeharra diren kontratu eta dokumentuak.

⁸⁰ 26. zenbaki hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Zazpi apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁸¹ 27. zenbaki hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Zazpi apartatuak gehitu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

28.⁸² Subrogazio eragiketak jasotzen dituzten notario eskrituren lehen kopiak, martxoaren 30eko 2/1994 Legeak, mailegu hipotekarioak subrogatu eta aldatzeari buruzkoak, ezartzen dituen eran eta baldintzetan.

Era berean, hartzekodun eta zordunaren arteko akordioz hitzarturiko mailegu hipotekarioak aldaberritzeko eskritura publikoak salbuetsita egongo dira zergaren modalitate horretan, baldin eta hartzekoduna martxoaren 30eko 2/1994 Legeak, mailegu hipotekarioak subrogatu eta aldatzeari buruzkoak, 1. artikuluan aipatutako entitateetako bat bada eta aldaketa aipatu legeak 4. artikulua 2. apartatua jasotako baldintzetako bati edo batzuei buruzkoa bada.

Apartatu honetan jasotako salbuespenak kreditu hipotekarioei ere aplikatuko zaizkie, beharkizun eta baldintza berdinetan.

29.⁸³ Luzamenduen formalizazio eskriturak, honako luzamenduak direnean: COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege- Dekretuaren 13.3 artikulukoak; COVID-19ari aurre egiteko gizarte eta ekonomia arloko premiazko neurri osagarriei buruzko martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-Dekretuaren 24.2 artikulukoak; 2020ko uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege-Dekretuaren 3tik 9ra arteko artikulukoak; eta COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz hartutako esparru akordio sektorialen babesean emandako luzamendu konbentzionalak, maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege-Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitak.

30.⁸⁴ Mailegu edo kreditu baten ordainketa berme gisa eraturiko hipoteken eraketa edo deuseztapena dokumentatzen duten notario eskrituren lehen kopiak, baldin eta mailegu edo kreditu hori Gipuzkoan ohiko etxebizitza erostera edo birgaitzera zuzentzen bada, notario dokumentuak kargatzen dituen egintza juridiko dokumentatuen modalitatearen karga mailakatuari dagokionez.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da 10/2006 Foru Arauak, abenduaren 29koak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, eta hori garatzen duen araudiak halakotzat hartutakoa. Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza-rekin batera eskualdatzen diren garaje plazak, gehienez ere bi unitatekoak, eta eranskinak sartuko dira. Negozioetarako lokalak ez dira etxebizitzaren eranskintzat hartuko, etxebizitzarekin batera eskualdatu arren. Aipatu foru arauak etxebizitza ohikotzat hartzeko jasotako baldintzak betetzen ez badira, subjektu pasiboak hasierakoaren autolikidazio osagarria

⁸² Zenbaki hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAren 2. artikuluko bigarren ordinalaren bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO).

⁸³ Zenbaki honi 2020ko uztailaren 21eko 6/2020 FORU DEKRETU-ARAUAren 2. artikuluko edukia eman dio. Aipatutako foru dekretu-arauak COVID-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarri jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta egun berean jarriko da indarrean (2020/07/22ko GAO).

⁸⁴ Zenbaki hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua zortzi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

aurkeztu beharko du, bidezko berandutza interesak sartuta, ez-betetzea gertatu eta ondorengo hogeita hamar eguneko epean.

Zergapekoa pertsona fisikoa denean eta hipotekak eratuta daudenean etxebizitza moduan gaitutako lokal bat eskuratzeko erabiltzen den mailegu edo kreditu baten ordainketaren berme gisa, baldin eta lokal horren eskualdaketari foru arau honetako 11. artikulua c) letraren azken paragrafoan aipatutako itzulketa aplikaziozkoa bazaio, hala eskatu ondoren, itzuli egingo du hipoteka horren eraketari edo deuseztapenari buruzko notario eskrituren lehen kopiei dagokienez benetan ordaindutako zerga, betiere etxebizitzak aurreko paragrafoan aipatutako ohiko etxebizitzaren kontzeptua betez gero. Itzulketa horrek ez du berandutze interesik sortuko.⁸⁵

31.⁸⁶ Seme-alaben aldeko urteko mantenuari buruzko erreklamazioetatik eratortzen diren enbargarako prebentziozko oharpenak.

32.⁸⁷ 1. Inbertsio kolektiboko erakundeen legean araututa dauden kapital aldakorreko inbertsio sozietateak eratzea, haien kapitala handitzea, eta, orobat, entitate horiei ekarpen ez-diruzkoak egitea salbuetsita egongo dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren sozietate eragiketen modalitatean.

2. Aipatutako legean araututa dauden inbertsio fondo finantzarioak aurreko paragrafoan ezarritako modu berean egongo dira salbuetsita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan.

3. Ondasun higiezinetak inbertsio kolektiboko erakundeak, gorago aipatutako legean araututakoak, inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak badira eta beren xede sozial bakarra edozein motatako ondasun higiezin hiritar eskuratu eta sustatzea bada, lurren erosketa barne, horiek gero errentan emateko, erakunde horiek aurreko bi paragrafoetan ezarritako zerga araubide berbera izango dute.

Era berean, erakunde horiek 100eko 95eko hobaria izango dute zerga honen kuotan, errentan ematera zuzendutako etxebizitzak erosteagatik eta errentan ematera zuzendutako etxebizitzak sustatzeko lurak erosteagatik. Horretarako,

⁸⁵ Paragrafo hau apirilaren 15eko 3/2021 FORU ARAUaren 4. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartu ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2021/04/21eko GAO).

⁸⁶ 31.zenbaki hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUaren 125.artikuluak gehitu du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga, Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

⁸⁷ Zenbaki hau martxoaren 30eko 2/2010 FORU DEKRETU ARAUaren 3. artikulua aldatzen du. Aipatu Foru Dekretu Arauak zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentzarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen du. Indarrean jartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean (2010/04/19) naiz eta ondorioak 2009ko urriaren 28tik aurrera dituen.

ezinbestekoa izango da, dena den, bi kasuetan betetzea ondasun higiezinak mantentzeari buruz Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 29.5 artikulua c) eta d) letretan ezartzen dituen berariazko beharkizunak, non eta, salbuespen gisa, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak baimen espresua eman ez duen.

4.⁸⁸ Hipoteken titulazio fondoak, aktibo finantzarioen titulazio fondoak eta kapital arriskuko fondoak salbuetsita egongo dira sozietate eragiketen modalitateari lotutako eragiketa guztietatik.

33.⁸⁹ Maileguen, kredituen edo zordunak dituen beste obligazio batzuen zenbatekoen kitak edo minorazioak jasotzen dituzten eskriturak, kita eta edo minorazio horiek Konkurtso Legearen testu bateginak, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen dituen berregituratze planetan sartuta daudenean, betiere baldin eta kasu guztietan subjektu pasiboa zorduna bada.

34.⁹⁰ Etxebizitzen eskualdaketa, horiek erosten dituztenak sozietateen gaineko zergaren araudian ondasun higiezinaren errentamenduko jardura kualifikatua duen entitateentzat jasota dagoen zerga araubidera bildutako sozietateak direnean, betiere horien geroko errentamenduagatik lortzen diren errentei araubide horretan ezarritako hobaria aplikagarri bazaie.

35.⁹¹ Etxebizitza errentamenduak eratzea programa hauek aintzat hartuta: ««Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa», abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak arautua, Merkatu Libreko Etxebizitzen Alokairurako bitartekaritzako ASAP programa, martxoaren 27ko 43/2012 Dekretuak arautua, eta foru zein udal esparruko antzeko beste plan edo programak.

Era berean, salbuetsita egongo dira zerga oinarrian errentak ez sartzeko araubideaz gozatzen duten errentamenduak –araubide horrek ezarrita egon behar du sozietateen gaineko zergaren foru arauaren 115. artikulua higiezinaren errentamendua jardura kualifikatu gisa duten entitateetarako aurreikusten duen araubide bereziaren esparruan–, betiere baldin eta errentamendu horien xedea

⁸⁸ Apartatu hau urriaren 20ko 2/2015 FORU DEKRETU ARAUAREN 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru dekretu arauak sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarri da indarrean (2015/10/27ko GAO), 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

⁸⁹ Zenbaki hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 24. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

⁹⁰ Zenbaki hau abenduaren 23ko 7/2015 FORU ARAUAREN 4. artikulua aldatu du. Foru arauak Zerga alorreko aldaketa jakin -batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean (2015-12-28ko GAO).

⁹¹ Zenbaki hau abenduaren 16ko 18/2014 FORU ARAUAREN 3. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen ditu (2014/12/19ko GAO). Foru araua 2014/12/20ean sartzen da indarrean.

sozietateak etxebizitza errentamenduak egitea bada. Ondorio horietarako, etxebizitza errentamendutzat bakar-bakarrik hartuko da Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

36.⁹² 2007ko abenduaren 7ko 41/07 Legeak, hipoteken merkatua erregulatzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuk aldatu, alderantzizko hipotekak eta mendekotasun aseguruak arautu eta zerga alorreko zenbait arau ezartzen dituenak, jasotakoaren arabera alderantzizko hipoteka eratu, subrogatu, aldaberritu eta deuseztatzeko eragiketei buruzko eskritura publikoak, egintza juridiko dokumentatuen modalitateko agiri notarialen kuota mailakatuari dagokionez.

37.⁹³ Ezgaituen ondare babestuen alde egindako ekarpenei buruzko eskritura publikoak, betiere aipatu ondareak arautuak baditu 2003ko azaroaren 18ko 41/03 Legeak, ezgaituen ondarea babestu eta Kode Zibila, Auzibideratze Zibilaren Legea eta horri buruzko zerga araudia aldatzen dituenak.

38.⁹⁴ Higiezin merkatuan inbertitzeko sozietateak, higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuak buruzko 11/2009 Legean arautuak, eratzea eta haien kapitala handitzea helburu duten eragiketak, eta sozietate horiei egindako ekarpen ez-diruzkoak salbuetsita egongo dira Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, eragiketa sozietarioen modalitatean.

Era berean, sozietate horiek %95eko hobaria izango dute zerga honen kuotan, errentan ematera zuzendutako etxebizitzak erosteagatik eta errentan ematera zuzendutako etxebizitzak sustatzeko lurak erosteagatik, baldin eta, bi kasutan, 11/2009 Legeak 3. artikuluen 3. apartatuan epeari buruz ezartzen duen beharkizuna betetzen bada.

39.⁹⁵ Hipoteka mailegu eta kredituen kontratu berritzeak formalizatzeko eskriturek ez dute ordaindu beharko zerga honen egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario agirien kuota gradualik, baldin eta honako zuzenbidezko arau hauen babesean egiten badira: Baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriak buruzko martxoaren 9ko 6/2012

⁹² Zenbaki hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 4. artikuluko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁹³ Zenbaki hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 4. artikuluko zortzi apartatuak gehitu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

⁹⁴ Zenbaki hau urtarrilaren 12ko 1/2010 FORU DEKRETU-ARAUAren 2. artikulua gehitu du. Aipatutako Foru Dekretu-Arauak zenbait zerga aldatzen ditu (2010/01/21eko GAO). Aldaketak 2009ko urriaren 28tik aurrera ditu ondorioak.

⁹⁵ Zenbaki hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

Errege Lege Dekretua, Covid-19aren Inpaktu Ekonomiko eta Sozialari aurre egiteko Ezohiko Premiazko Neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua eta Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka maileguen interes tasen igoera arintzeko Jardunbide Egokien Kodea ezarri, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretua aldatu eta hipoteka maileguen merkatua hobetzeko egiturazko beste neurri batzuk hartzen dituen azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege Dekretuaren bidez sartzten den Jardunbide Egokien Kodea.

40.⁹⁶ Alde bakarreko hipotekak eratu, berritu edo deuseztatzeko, artikuluko honen I.A.a) apartatuan aipatutako herri administrazioetako edozeinen alde egiten diren notariotzako eskrituren lehen kopiak.

41.⁹⁷ Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren erabilera egonkor eta iraunkorreko etxebizitzaren errentamenduek.

42.⁹⁸ Foru arau honetako 18. artikuluan jasotakoaren arabera zergari lotuta dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitateei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legean araututa dauden borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak eratzea, desegitea eta gainerako sozietate eragiketak egitea.

Era berean, salbuetsita egongo dira Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginak –azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak– arautzen dituen pentsio funtsak eratzea, desegitea eta handituz edo txikituz aldatzea.

43.⁹⁹ Berme erreal inskribagarria dagoenean, abal publikoa jaso duten finantzaketa eragiketen epemugak –martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-Dekretuak, COVID-19aren pandemiaren aurrean enpresa kaudimenari laguntzeko ezohiko neurriei buruzkoak, 7. artikuluan aurreikusiak– zabaltzeko formalizatzen diren eskriturak salbuetsita geratuko dira zerga honen egintza

⁹⁶ Zenbaki hau maiatzaren 10eko 1/2018 foru arauaren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzten da indarrean (2018/05/17ko GAO).

⁹⁷ Zenbaki hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 5. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzten ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

⁹⁸ Zenbaki hau apirilaren 15eko 3/2021 FORU ARAUAREN 4. artikuluko bi apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartu ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean jarri da indarrean (2021/04/21eko GAO).

⁹⁹ Zenbaki hau martxoaren 23ko 2/2021 Foru Dekretu-Arauaren 6. artikulua gehitu du. Aipatutako foru dekretu arauak COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten ditu. Aldaketa foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean (2021/03/24ko GAO).

juridiko dokumentatuen modalitatean notariotza dokumentuei aplikatzen zaien kuota mailakatutik.

44. 1. Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-Dekretuan araututa dauden bonu bermatuak, hipoteka partaidetzak eta hipoteken eskualdaketa ziurtagiriak jaulki, eskualdatu, amortizatu eta itzultzea. Errege lege-dekretu horren bidez, Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiten da honako gai hauetan: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta sektore publikoaren informazioaren berrerabilera, lineako zenbait eskualdaketa eta irratia eta telebista bidezko programen emanaldietan aplikatzekoak diren egile eskubideak eta horien kidekoak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen aldi baterako salbuespenak, pertsona kontsumitzaileak, eta errepide bidezko garraio ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena.

2. Entitate jaulkitzailea konkurtso egoeran sartzen den kasurako aurreikusten den ondare bereizia eratzeko aktiboen eskualdaketa, eta jaulkipenak batera finantzatzeko asmoz beste kreditu entitate baten alde egiten den mailegu eskualdaketa, azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-Dekretuaren 14. artikuluan arautua. Errege lege-dekretu horren bidez, Europar Batasunaren zuzentarauen transposizioa egiten da honako gai hauetan: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz gaindiko banaketa, datu irekiak eta sektore publikoaren informazioaren berrerabilera, lineako zenbait eskualdaketa eta irratia eta telebista bidezko programen emanaldietan aplikatzekoak diren egile eskubideak eta horien kidekoak erabiltzea, inportazio eta hornidura jakin batzuen aldi baterako salbuespenak, pertsona kontsumitzaileak, eta errepide bidezko garraio ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena.

45.¹⁰⁰ Kalte-ordainak ordaintzeko edozein tituluren bidez ondasunak edo eskubideak eskualdatzea, judizialki aitortutako zenbatekoan, seme-alaben mesedetan eta tutoretza, jagoletza eta zaintzara lotuta dauden edo haien gaitasun juridikoa behar bezala gauzatzeko laguntza neurriak jarrita dituzten adingabeen edo desgaituen mesedetan, baldin eta haiek emakumeen aurkako bortxakeria matxistaren ondorioz hildako emakumeek gauzatzen badituzte, betiere legean edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnetan zehazten den moduan.

46.¹⁰¹ Egiten diren eskualdaketa eta gainerako egintzak eta kontratuak, baldin eta eskuratzailerak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezarritako beharkizunak betetzen dituen entitate bat izateaz gainera, xedapen hauek aplikatzen baditu: uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea, Fundazioen eta Babes

¹⁰⁰ Zenbaki hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 6. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

¹⁰¹ Zenbaki hau maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren 24. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2025/05/15eko GAO).

Jardueren Zerga Erregimenari buruzkoa; martxoaren 20ko 4/2019 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzkoa; uztailaren 12ko 16/2004 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoa; abenduaren 23ko 49/2002 Legea, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzkoa, edo horien orde zedatzen direnak. Barruan sartzen dira, orobat, lehen adierazitako 3/2004 Foru Arauaren 18. artikuluko i) letraren bigarren paragrafoan aipatzen diren organismo eta entitateei egiten zaizkien eskualdaketak eta bestelako egintzak eta kontratuak.».

C)¹⁰² Sozietate laboral eta partaidetuei buruzko urriaren 14ko 44/2015 Legearen arabera lan sozietate gisa kalifikatutako sozietateek 100eko 99ko hoberia izango dute zerga honetan doako ondare eskualdaketak direla-eta sortzen diren kuotetan, baldin eta zuzenbidean onartzen den edozein bide erabiliz eskuratzen badituzte lan sozietateko bazkide langile gehienek sorburu den enpresaren ondasunak eta eskubideak.

Sozietate bati lan sozietate kalifikazioa kentzen bazaio, aurreko paragrafoan aipatutako legean ezarritakoaren arabera, sozietate horrek galdu egingo ditu lan sozietate izateagatik izandako tributu onurak, deskalifikatzeko arrazoia gertatzen denetik galdu ere, eta erabilitako onurak zein haiei dagozkien berandutze interesak itzuli beharko ditu.

II. Onura fiskalak ez zaizkie inolako kasutan egotziko aldaketa letrei, hauek ordezkatzan dituzten edo jiro funtsak egiten dituzten dokumentuei, eskriturei, aktei edo 29.1 artikulua kargatutako notaritzako lekukotasunei.

II. Kapitulua: Balioak egiaztatzea

42. artikulua.¹⁰³

1.¹⁰⁴ Administrazioak eskubide eta ondasun eskualdatuen balio erreala egiaztatu ahal izango du, edo, hala badagokio, sozietate eragiketarena edo egintza juridiko dokumentatuen.

¹⁰² Letra hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUAREN 2. artikuluko bigarren ordinalaren hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO).

¹⁰³ Artikulu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez.

¹⁰⁴ Apartatu hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 5. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

2.¹⁰⁵ Egiaztapena Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan ezarritako bideak erabiliz egingo da.

3.¹⁰⁶ Babes publikoko etxebizitzak direnean, eskualdatutako eskubide edo ondasunen balio egiaztatua ezin izango da haien araudi berezia egotziz aipatu etxebizitzei dagokien gehieneko prezioa baino handiagoa izan.

4. Edozein kasutan, interesatuek aitorturiko balioa nagusituko da egiaztapenaren emaitzan ateratakoa baino handiagoa gertatzen denean.

5.¹⁰⁷ (*edukirik gabe*).

6. Frogatutako balioa aitortuaren %100aren gainekoa gertatzen denean, Administrazio Publikoak eskubide izango du eskualdatutako ondasun eta eskubideak beretzat hartzeko, eskubide hau Zerga likidatzen den irmotasun-datatik jarraiko sei hilabeteetan bakarrik erabili ahal izango duelarik. Eskubide hau eraginkor egiten den guztietan eskualdaketatik ordaindutako zenbatekoa itzuliko da. Ondasun edo eskubideen okupazioari salneurriaren ordainketa osoa dagokio, aitortutako balioaz bakarrik osaturikoa.

7.¹⁰⁸ Benetako baliotzat hartuko da eskualdatutako ondasun eta eskubideen konkurtsoko epailearen ebazpenetan finkatutako balioa. Beraz, ez da bidezkoa izango balioak egiaztatzea, prozedura konkurtsalean ondasun eta eskubideak eskualdatzen direnean, epaileak onartutako hitzarmenean jasotako kreditu lagapenak eta likidazio fasean gauzatutako aktibo salmentak barne hartuta.

43. artikulua.¹⁰⁹

Frogaketa egitetik ateratako balioak aitortutakoak baino handiagoak badira, interesatuek baloraketa berri horren aurka jotzerik izango dute, balio berriak kontutan hartu behar dituzten likidazioak erreklamatzeko epeen barruan. Balio

¹⁰⁵ 2. Apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako seigarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

¹⁰⁶ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAU Aren 4. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹⁰⁷ Apartatu hau abenduaren 23ko 6/2015 FORU ARAU Aren amaierako laugarren xedapenak edukirik gabe utzi du. Aipaturiko foru araua Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa da (2015-12-24ko GAO). Foru araua argitaratu eta biharamunean jarri da indarrean.

¹⁰⁸ 7. apartatu hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAU Aren II Kapituluako 6. artikuluen laugarrengo apartatuak erantsi du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu (GAO 2004-04-16).

¹⁰⁹ Artikulu hau maiatzaren 19ko 41/1992 Foru Dekretuaren 9. artikulua aldatu du 1992ko ekainaren 4tik aurrerako ondorioekin. Foru dekretu horrek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia egokitzen du abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarteen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez.

berriek eskualdatzaileengan zerga ondorioak dituzten kasuetan, hauei aparte jakinaraziko zaie bide ekonomiko-administratiboan edo birjarpen errkurtsuaren bidez horren aurka jotzerik izan dezaten, edo perituen tasaketa kontraesankorraren bidez balioen zuzenketa eskatzerik izan dezaten, eta erreklamazioa edo zuzenketa onartzen badira osorik edo zati batean, hartutako erabakiak Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren subjektu pasiboak ere onartuko ditu.

44. artikulua.

Administrazioko perituen diktamen bidezko balioen egiaztapena Bulego Likidatzailearen eskariz egingo da eta egindako baloratzearen zenbatekoa eta bere oinarriko fundamentuak espreski adieraziko dira.

45. artikulua. ¹¹⁰

1.¹¹¹ Aurreko 42.1 artikuluan xedatutakoa xedatuta ere, kasu hauek gelditzen dira balioaren egiaztapen administratibotik kanpo:

a) Zerga Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorren 85. artikuluan jasotakoaren arabera horretarako komunikatutako balioa.

b) Errepidean zirkulatzeko motor mekanikodun ibilgailu erabilien balioa eta urontzi erabilien balioa, betiere aldiari aldiari foru agindu bidez argitaratzen diren batez besteko salmenta prezioen tauletan jasota agertzen badira.

Aipatutako tauletan, ibilgailu edo urontziaren erabilera urteen arabera aplikagarri diren balio galerako portzentajeak jasoko dira.

2. Subjektu pasiboak tasazio perizial kontrajarria eskatu dezake aurreko parrafoan adierazitako prozedura aplikatuz ateratzen den balorea zuzentzeko.

46. artikulua. ¹¹²

1. Balioak egiaztatzean lortutako emaitza zuzentze aldera, interesatuek peritu tasazio kontrajarria sustatu dezakete, administratiboki egiaztatutako balioetan oinarrituta egindako likidazioaren kontra egindako lehen erreklamazioaren epearen barruan aurkeztekoa den eskaera baten bidez.

¹¹⁰ 45. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Bederatzi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

¹¹¹ Apartatu hau apirilaren 24ko 1/2020 Foru Arauaren 5. Artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Europako zuzentarauen transposizioarekin lotutako zerga aldaketa batzuk ekarri eta beste zenbait aldaketa tekniko sartzen ditu. Aldaketa foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2020/04/28ko GAO).

¹¹² Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUAREN 4. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO)

Aurreko paragrafoan aipatutako epea errekurso edo erreklamazioari buruzko erabakia administrazio bidean irmoa den datatik aurrera kontatuko da, interesatuaren iritziz jakinarazpenean nahiko argi jasota ez daudenean aitortutako balioak igotzeko kontuan hartutako datuak eta arrazoiak eta, gainera, aipatu datuak jaso ez izana salatzen duenean berraztertze errekursoan edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan, peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea beretzat gordeta.

2. Eskualdatzaileek eskatutako peritu tasazioa foru arau honen 43. artikuluan ezarritakoaren ondorioa denean, eskaera egiaztapenean egotzitako balioen aparteko jakinarazpenaren ondorengo hamabost eguneko epean aurkeztu beharko da.

47. artikulua. ¹¹³

Peritu tasazio kontrajarria egiteko eskaera aurkezteak edo 46. artikuluko 1. apartatuan hura sustatzeko aipatutako eskubidea beretzat gordetzeak, baldin eta balioak eta horiek kontuan hartu dituzten likidazioak batera jakinarazi badira, berarekin ekarriko du egindako likidazioen ordainketa eta likidazio horien aurka erreklamatzeko epeak etetea.

III. Kapitulua: Sortzapena eta preskripzioa

48. artikulua.

1. Zerga sortzatuko da:

a) Ondare eskualdaketetan, egintza edo kontratu kargaduna ospatzen den egunean.

b) Eragiketa sozietario eta egintza juridiko dokumentatuetan kargari loturiko egintza formaltzen den egunean.

2. Bere eraginkortasuna baldintza, hitz, fideikomiso edo beste edozein muga dela eta etenik duen ondasun hartze oro, muga horiek desagertzen diren egunean eginga joko du beti.

49. artikulua.

1.¹¹⁴ Preskripzioa, salbu ondorengo apartatuan xedatutakoa, Zergen Foru Arau Orokorreko 65. eta ondorengo artikuluetan aurreikusitakoaz arautu behar da.

¹¹³ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 4. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

¹¹⁴ 1. apartatu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako seigarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

2. Preskripzio ondorioetarako, likidaziorako aurkeztu behar duten dokumentuetan, pribatuen data bere aurkezpenekoa dela joko da, aurrez Kode Zibileko 1227 artikuluan aurrikusitako zirkunstantzietako edozein agertu ez badira, kasu horretan sartze, inskribatze, heriotze edo emate data konputatuko da. Dokumentuz isladatu gabeko kontratuetan, ondorio berdineterako bere data interesatuek 50-2 artikuluan eta jarraikoan aurrikusita aurkezten duten aitorpenarena dela.

3.^{115,116} Atzerriko funtzionarioek baimendutako eskriturak direnean, iraungitze epea Espainiako edozein administrazioan aurkezten den egunetik aurrera zenbatuko da, salbu Espainiak izenpetutako nazioarteko itun, hitzarmen edo akordio batean beste egun bat finkatzen bada epe hori hasteko.

IV. Kapituluak: Eginbehar formalak

50. artikulua.¹¹⁷

1. Zergadunek arauz ezartzen diren moduan, lekuan eta baldintzak betez aurkeztu eta sinatu behar dute zerga honen autolikidazioa.

2. Izaera orokorrean, subjektu pasiboak, zergaren sortzapena gertatu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan, autolikidazioa egingo du, eta 38/2006 Foru Dekretuak, abuztuaren 2koak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, aurreikusten duen eran ordainduko du zenbatekoa.

Era berean kasu berezietan, hala nola merkataritza dokumentuak likidatzen direnean, usufruktuak desagertzen direnean usufruktuduna hil delako eta abarretan, beste epe batzuk finkatu ahal izango dira, erregelamendu bidez.

3. Subjektu pasiboek aurkeztu egin beharko dituzte foru arau honek aipatzen dituen zergagaiak jasotzen dituzten dokumentuak eta, horrelakorik ez badago, aitorpen bat aurkeztu beharko dute, erregelamendu bidez finkatzen diren epeak eta moduak betez.

4. Ondasun higiezinak eskualdatzean, lurralde espainiarreko egoiliarrek ez diren subjektu pasiboen zerga helbidea, zerga honek dakartzan betebeharrak

¹¹⁵ Zenbaki hau Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUAren II Kapituluako 6.artikuluko Lehenengo apartatuaren Sei zenbakiak kendu du. Beraz, artukulu horren 4 zenbakia 3 zenbakia izango da aurrerantzean. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak (GAO, 2004-04-16 koa).

¹¹⁶ 4.apartatu hau martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUAren 126.artikuluak erantsi du. Foru Arau honek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga, Sozietateen gaineko zerga,Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko zerga,Ondarearen gaineko zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. (GAO, 56 zki.a, 2003-03-24 koa).

¹¹⁷ Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAren 4. artikulua bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

betetzera begira, ordezkariaren zerga helbidea izango da. Izan ere, ordezkaria izendatu behar dute Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko 2/1999 Foru Arauak, apirilaren 26koak, 9. artikuluan jasotakoaren arabera. Izendapen hori aditzera eman beharko diote zerga administrazioari, higiezin eskuratzen duten datatik bi hilabeteko epean.

Ordezkaririk izendatu ezean edo izendapena jakinarazteko betebeharra konplitu ezean, ondasun eskualdatuaren helbidea hartuko da zergadun ez-egoiliarren zerga helbidetzat.

51. artikulua.¹¹⁸

Zerga honen urraketak Zergen Foru Arau Orokorrak IV. tituluan xedatutakoaren arabera zigortuko dira.

52. artikulua.¹¹⁹

1. Bulego edo erregistro publikoetan ez da onartuko, eta ez du eraginik sortuko, zerga honi lotutako egintza edo kontratuei buruzko inolako agiririk, aurretik ez bada justifikatzen Zerga Administrazio eskudunari zerga zorra ordaindu zaiola, administrazio horrek salbuespena deklaratu duela, edo, gutxien jota, agiri hori administrazioari aurkeztu zaiola. Administrazio interesatuari berehala eman beharko zaio gertatzen diren gorabeheren berri. Epaitegi eta auzitegiek onartzen dituzten agirietan ez bada inolako oharrik ageri zerga Administrazioak likidatzeko aurkezpenaren inguruan, agiri horien kopia baimendua bidali beharko diote zerga likidatzeko eskumena duen administrazioari.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, zerga ordaindutzat joko da baldin eta delako agiriarekin batera tributua ordaindu izana adierazten duen autolikidazioa aurkezten bada.

3.¹²⁰ Inskripzioaren albo-ohar baten bitartez, erregistratzaileak agerrarazi behar du eskualdatutako ondasun edo eskubideagatik bidezko den likidazioa edo likidazio osagarria ordaindu beharko dela.

Albo-oharra ofizioz egingo da, eta indarrik gabe eta deuseztatuta geratuko da egindako likidazioaren ordainketa gutuna aurkezten denean eta, nolana ere, albo-oharra egin zenetik lau urte igaro eta gero.

53. artikulua.

¹¹⁸ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako seigarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

¹¹⁹ Artikulu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUaren 5. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Foru Arau horrek zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an sartzen da indarrean (2009/12/28ko GAO).

¹²⁰ Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUaren 4. artikuluen hamar apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

1. Epaitegi organuek edozein moetatako ondasunak edo eskubideak transmititzen dituzten, ondasunen, zerbitzu pertsonalen, kredituen edo kalteordainen salneurrietako diru kopuruak salbu, erabaki burutzaileen edo epai tinko izaera dutenen hileroko zerrenda bat igorriko diote Foru Haziendari.

2.¹²¹ Notarioak behartuta daude bulego likidatzaileei igortzera, hiruhilabete bakoitza amaitu ondorengo hilabetearen barruan, aurreko hiruhilabetean beraiek baimenduriko agiri guztien zerrenda edo aurkibidea, salbu azken borondatezko egintzak, seme-alabak aitortzeko egintzak eta Foru Aldundiak erabakitako gainerakoak. Epe berean, zergari lotuta dauden kontratuei buruzko agiri pribatuen zerrenda ere bidali behar dute notarioek, beraiek ezagutzeko edo sinadurak legitimatzeko aurkezten zaizkienean. Era berean, zergari lotutako agirietan ondokoak jasota utzi behar dituzte, lege oharren artean eta espresuki: zein epetan aurkeztu behar duten interesatuek agiri horien likidazioa; zein ondasunengatik ordaindu behar den eskualdaketen gaineko zerga; eta, azkenik, zein erantzukizun egokituko zaien baldin eta zerrenda edo aurkibidea aurkezten ez badute.

3. Artikulu honetan aurrikusitakoa Zerga Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzara behar orokorraren kalterik gabe ulertzen da.

54. artikulua.

Epaitegi organuek, Banketxe, Aurrezki Kutxa, Elkarteek, funtzionarioek, partikularrek edo beste edozein Entitate publiko edo pribatuk, ez dute akordatuko ondasun entregarik bere izenduna ez den pertsonari aurrez Zergaren ordainketa, atxekimendurik eza edo salbuespena kreditatu gabe, Administrazioak baimenik ematen ez badio behintzat.

55. artikulua.

1.¹²² Ez da beharrezkoa izango agiri hauek aurkeztea bulego likidatzaileetan:

a) Kopuru edo gauza baloragarri bat xede ez duten notariotzako eskritura eta akten kopiak eta mota guztietako notariotza lekukotasunak. Kanpoan geratzen dira zergari lotutako egintzak dokumentatzen dituzten agirienak, dokumentu horietan ordainketaren, salbuespenaren edo zergari ez lotzearen oharra ageri ez bada.

b) Kanbio letrak eta protesto aktak.

c) Egintzen eta kontratuen inguruko beste edozein agiri, baldin eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen badu horietan zerga ordainarazteko efektu tinbredunak erabili beharra dagoela.

¹²¹ 2. apartatu hau zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUaren 7. artikulua aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2005-11-03ko GAO).

¹²² Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 FORU ARAUaren 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. Foru arau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

2.¹²³ Ondasun higigarriak epeka saltzeko kontratuek eta mailegu kontratuek, ondasun higiezinak epeka saltzeari buruzko 28/1998 Legeak, uztailaren 13koak, aipatzen dituen horiek, Lege bereko 15. artikulua aipatzen duen Erregistrorako sarbidea izango dute, haietan zerga egoerari buruzko ohar administratiboa erasota laga beharrik gabe.

56. artikulua.

Aurrez Zergaren ordainketa eta salbuespena zuritu gabe ezingo da burutu inolako zerga edo exakzioaren subjektu pasibo aldaketarik, zuzenean ala zeharka Foru Arau honek kargatutako ondasun, eskubide edo akzioen eskualdaketa bat gertatzen denean

V. Kapituluak: Zergaren ordainketa

57. artikulua.

1.¹²⁴ Hurrengo apartatuan xedatzen den salbuespenarekin, autolikidazioen ordainketa eskudirutan egingo da foru arau honetako 50. artikuluan aurreikusten diren modua eta epeak betez, lehengo 55.1 d) artikuluan xedatutakoa ere bete beharko bada ere.

2. Efektu tinbratu bidez ordaindu behar diren zerga zorrak zergagaia burutzen den une berean ordainduko dira.

3. Administrazioak eginiko likidaketa osagarrien ordainketa dirutan egingo da arauz erabakiko den epean.

VI. Kapituluak: Itzulketak

58. artikulua.

1.¹²⁵ Epaileek edo administrazioak ebazpen irmoz aitortzen badute egintza edo kontratu bat baliogabetu, desegin edo indargabetu dela, zergadunak eskubidea izango du Zergaren kuotagatik ordaindu zuenaren itzulketa jasotzeko, beti ere diru irabazirik sortu ez badio eta itzulketa lau urteko epean eskatzen badu ebazpena irmo bihurtu denetik aurrera.

¹²³ Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUaren 4. artikulua hamaika apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

¹²⁴ Apartatu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUaren 4. artikulua hamabi apartatuak aldatu du. Aipatu Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO).

¹²⁵ 1. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 6. artikuluko Hamaika apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- 2.. Ondorio lukurruduna esistiten dela ulertuko da interesatuek Kode Zibileko 1295 artikulua dituen elkarrekiko itzulketak burutu behar dituztenik zuritzen ez denean.
3. Ekitaldiak edo kontratuak lukurrudun ondorio sortu izan balu, egindako likidaketa zuzenduko da, horretarako oinarritzat transmitituriko eskubide edo ondasunen aldiko usufraktuaren balioa.
4. Ekitaldiak edo kontratuak ondorio lukurrudun sortu ez badu ere, etetea edo burutzea fiskalki zerga ordaintzera behartutako kontratatzaileen betebeharrak ez betetzeagatik aitortuko balitz ez da bidezko izango inolako itzulketarik.
5. Kontratua ondorio gabe gertatzen bada alde kontratatzaileen akordioz, ez da bidezko izango ordaindutako zergaren itzulketa eta zergari lotutako egintza berriztat joko da. Elkarren arteko akordio bezala kontsideratuko da pakeatze egintzako abenentzia eta demandara makurtze soilak.
6. Retro hitzarmendun salmentetan atzeratzea erabiltzen denean, ez da Zergaren itzulketa eskubiderik egongo.
7. Foru Diputazioak erabakiko ditu dokumentu tinbratuen edo tinbre higikorren truketa edo bere zenbatekoaren itzulketari baimena emango zaizkion kasuak, beti ere haiek ondorio sortu ez badute.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Foru Arau honetako prezeptuak egintza ezargarriei egozgarri izango zaizkie berau indarrean sartzen denetik.

Bigarrena.

Foru Arau honetan Ondarearen gaineko Zergari egiten zaizkion aipuak Ondarearen gaineko Ezohizko Zergari eginak ulertuko dira eta, bere garaian, Ondare Garbiaren gaineko Zergari, hau indarrean sartuko litzatekenean.

Hirugarrena. Sozietate gardenen erregimen iragankorra.¹²⁶

Foru arau honek 6. artikuluan Bi.A) apartatuaren 2. arauan jasotakoa eragotzi gabe, ez dira kontuan hartuko, zergadunak Gipuzkoan duela interesgune nagusia duela zehazte aldera, martxoaren 18ko 3/2003 Foru Arauak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gainekoa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Oinordetza eta Dohaintzen gainekoa eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko

¹²⁶ Hirugarren Xedapen Iragankor hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren II Kapituluko 6.artikuluan bigarrenko apartatuaren hiru zenbakiak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu (GAO 2004-04-16).

Dokumentatuen gainekoa araupeturik duen arautegia aldatzen duenak, lehen eta bigarren xedapen iragankorretan jasotakoa dela medio egotzitako oinarriak ere, salbu gardentasun fiskal profesionalaren erregimenera bildutako sozietateei badagozkie.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.

Nahiz eta Foru Arau honetan xedatutakoa, Ondare Transmisio eta Ekitaldi Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga arautzen duen ekainaren 21eko 32/1980 Legearen indarra ondoren argitaraturiko xedapen legalen bidez ezarritako zerga onura eta zerga errejimen bereziek, indarrean jarraituko dute kasu bakoitzean ezarririk luketen epean

Bigarrena. Izatezko bikoteak.¹²⁷

Foru arau honen ondorioetarako, testu honetan izatezko bikote esaten den guztietan Izatezko bikoteak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako bikoteak aipatzen ari direla joko da.

Era berean, ulertuko da erreferentzia horiek beste autonomia erkidego batzuetako, Europar Batasuneko beste estatu batzuetako, Europako Esparru Ekonomikoko edo hirugarren herrialdeetako erregistro publikoetan antzeko moduan eratu eta inskribatutako izatezko bikoteei ere egiten zaizkiela.

Orobat, ezkontza bidezko ahaidetasun harremanei buruzko aipamenek izatezko bikotetik eratorritakoak ere hartuko dituzte barne.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Foru Arau honen Erregelamendua onartzen ez den bitartean, egozgarri izaten jarraituko dute Foru Arau hau indarrean sartzeko unean indarrean dauden arauzko prezeptu guztiak, beraren kontra ez doazen heinean.

Bigarrena.

Foru Arau hau burutu eta garatzeko beharrezko diren xedapenak diktatzeko ahalmena Diputatuen Kontseiluari ematen zaio.

Hirugarrena.

Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

¹²⁷ Xedapen hau maiatzaren 10eko 1/2024 FORU ARAUAren 8. artikuluko hiru apartatuak gehitu du. Aipatutako foru araua 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena da. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2024/05/17ko GAO).

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Urtarrilaren 17ko 2/1989 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zerga Araudia 1989rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 37/1988 Legean jasotako neurrietara egokitzen duena.(1989-01-30eko GAO).***
 - 4. artikulua 24. artikulua aldatzen du
- ***Urtarrilaren 23ko 5/1990 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako zerga araudia aurrekontu, finantza eta zerga alorrean presazko neurriak hartzen dituen abenduaren 29ko 7/1989 Errege-Lege Dekretuan jasotako neurri fiskaletara egokitzen duena. (1990-02-12ko GAO).***
 - 1. artikulua 10.2.j) eta 41.1.B).18 artikulua aldatzen ditu
- ***Maiatzaren 21eko 7/1990 FORU ARAUA, Ondasun Higiezin, Eraikuntza, Instalazio eta Obren eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergei dagokienez zerga izaerako zenbait neurri hartzen duena. (1990-05-29ko GAO).***
 - 3. artikulua 41.1.A).b) artikulua azken parrafoa gehitzen du
- ***Uztailaren 24ko 44/1990 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Estatuaren 1990eko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 4/1990 Legean jasotako zerga neurrietara eta aurrekontu, finantza eta zerga alorreko neurriei buruzko ekainaren 29ko 5/1990 Legean aurreikusitakoetara egokitzen duena.. (1990-08-09ko GAO).***
 - 2. artikulua 41.1 B) 19 artikulua aldatzen du
- ***Maiatzaren 19ko 41/1992 FORU DEKRETUA, zeinaren bidez egokitzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abenduaren 16ko 29/1991 Legeak, zenbait zerga kontzeptu Europako Elkarleen direktiba eta erregelamenduetara egokitzekoak, esandakora Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko zergari eta***

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergari dagokienez. (1992-06-03ko GAO).

- 1. artikulua 7.1.b) artikulua aldatzen du.
 - 2. artikulua 7.5 artikulua aldatzen du.
 - 3. artikulua 7.6 artikulua aldatzen du.
 - 4. artikulua 10.2.f) artikulua aldatzen du.
 - 5. artikulua 14. artikulua aldatzen du.
 - 6. artikulua 15.6 artikulua gehitzen du.
 - 7. artikulua 18., 20., 21., 22. eta 23. artikulua aldatzen ditu.
 - 9. artikulua 42., 43., 46. eta 47. artikulua aldatzen ditu.
 - 10. artikulua 50.1 eta 50.2 artikulua aldatzen ditu.
 - 11. artikulua 51. artikulua aldatzen du.
 - 12. artikulua 55.1 artikulua aldatzen du.
-
- ***Abenduaren 9ko 98/1992 FORU DEKRETUA, bategite eta zatiketen, aktibo ekarpenen, balore trukeen eta sozietate matriz nahiz filialen zenbait alderdi arautzen dituen. (1992-12-29ko GAO)***
 - 5. xedapen gehigarriak 19. artikulua aldatzen du.
 - 6. xedapen gehigarriak 41.1.B) 10. artikulua aldatzen du).
-
- ***Martxoaren 2ko 1/1994 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1994rako aurrekontua onartzeari buruzkoa. (1994-03-07ko GAO).***
 - Bigarren xedapen gehigarriak 29.1 artikulua aldatzen du.
-
- ***Martxoaren 24ko 5/1995 FORU ARAUA, ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik pizgarri fiskalak ematekoa. (1995-04-03ko GAO).***
 - 10. xedapen gehigarriak 41.1.A).c) artikulua aldatzen du.

- ***Otsailaren 5eko 1/1996 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1996rako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzkoa. (1996-02-13ko GAO).***
 - 3. xedapen gehigarriak 10.2.k), 11.1.d) eta 17. artikulua aldatzen ditu
- ***Abenduaren 23ko 13/1996 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1997rako aurrekontu orokorrak onartzeari buruzkoa.. (1996-12-31ko GAO).***
 - 3. xedapen gehigarriak 10.2 a) artikulua aldatzen du
- ***Azaroaren 18ko 78/1997 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak Euskal Herriko Ekonomi Itunean egindako aldaketetara egokitzen duena.. (1997-12-03ko GAO).***
 - 22. artikulua 6. artikulua aldatzen du
- ***Abenduaren 22ko 7/1997 FORU ARAUA Guipuzkoako Lurralde Historikoaren 1998rako Aurrekontu orokorrak onartzen dituen (1997-12-31ko GAO).***
 - 3. xedapen gehigarriak 12., 13.2, 29.2, 34.2 eta 55.1.b). artikulua aldatzen ditu.
- ***Otsailaren 25eko 1/1998 FORU ARAUA, Zerga Neurriei buruzkoa. (1998-03-05eko GAO).***
 - 9. artikulua 55. 1 d) artikulua aldatzen du.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 1999rako Aurrekontu Orokorrak onartzeari buruzko abenduaren 21eko 7/1998 FORU ARAUA. (1998-12-29ko GAO).***
 - 5. xedapen gehigarriak 41.1.B) 17, 41.1.B) 21 eta 41.1.B) 22 artikulua aldatzen ditu.
- ***Zerga Neurriei buruzko apirilaren 27ko 3/1999 FORU ARAUA. (1999-05-03ko GAO).***

- 6.artikuluaren lehen apartatuak parrafo bat erantsi dio 11.artikuluaren 1 apartatuko b) letrari.
 - 6.artikuluaren bigarren apartatuak 23 eta 24 zenbakiak erantsi dizkio 41.artikuluko 1 apartatuaren B) letrari.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA.(1999-12-31ko GAO)***
 - 6. artikuluak 2. artikuluaren 2. apartatua, 7. artikuluaren 2. zenbakiko a) letra, 17. artikulua, 19. artikulua, 41. artikuluaren 1. apartatuko B) letraren 10. zenbakia eta 41. artikuluaren 1. apartatuko B) letraren 18. zenbakiaren bigarren parrafoa aldatzen ditu. 41. artikuluaren 1. apartatuko B) letrari 25etik 29ra bitarteko zenbakiak gehitu dizkio. 41. artikuluaren 1. apartatuari C) letra gehitu dio. Eta 45 artikulua, 50. artikuluaren 2. apartatua eta 58. artikuluaren 1. apartatua aldatzen ditu.
- ***Urtarrilaren 30eko 2/2001 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia 6/2000, 13/2000 eta 14/2000 legeetara egokitzen duena. Hona hemen lege horiek: abenduaren 13ko 6/2000 Legea, familien aurrezpena eta enpresa txiki eta ertaina suspertzeko presako zerga neurriak onartzekoa, abenduaren 29ko 13/2000 Legea, Estatuaren 2001. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, eta abenduaren 29ko 14/2000 Legea, zerga, administrazio eta gizarte alorreko neurri fiskalei buruzkoa. (2001-02-08ko GAO)***
 - Zazpigarren xedapen gehigarriak, 41. artikuluaren 1 apartatuko B) letraren 29. zenbakia aldatzen du.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikorako hainbat zerga neurri onartzen duen otsailaren 12ko 2/2001 FORU ARAUA.(2001-02-16ko GAO)***
 - 5. artikuluak, 7. artikuluaren 1 apartatuko b) letra eta 41. artikuluaren 1 apartatuko B) letraren 28 zenbakia aldatzen ditu. 30 zenbakia gehitu dio 41. artikuluaren 1 apartatuko B) letrari eta 3 apartatua gehitu dio 49. artikuluari.
- ***Ondare Transmisio eta Ekitaldi Jurídiko Dokumentatuen gaineko Zergaren abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauaren 11. artikulua aldatzen duen martxoaren 1eko 4/2001 FORU ARAUA. (2001-03-08ko GAO)***
 - e) letra gehitzen dio 11.1. artikuluari.

- ***Uztailaren 6eko 24/2001 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua eta zerga izaerako beste arau batzuk aldatzen dituenaren 9. artikulua aldatu du. (2001-07-16ko GAO)***
 - Bere 9. Artikuluak 41.1.B)artikuluaren 10. zenbakia aldatu du.
- ***Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO)***
 - Bere 7. Artikuluak, 10. artikuluko 2 apartatuko e) hizkia eta 29. artikuluko 2 apartatua aldatu ditu, eta 41. artikuluko a apartatuko B) hizkiko 11 zenbakia edukirik gabe utzi du.
- ***Urtarrilaren 29ko 1/2003 FORU ARAUA, Gipuzkoako zerga araudia Ekonomia Itun berriaren xedapenetara egokitzen duena. (2003-02-06ko GAO).***
 - Bere 8.artikuluak 6.artikulu aldatu du.
 -
- ***Martxoaren 18ko 3/2003 FORU ARAUA, ondoko zergak erregulatzen dituen araudia aldatzen duena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. (GAO 56 zki.a, 2003-03-24koa).***
 - Bere Seigarren Kapituluak 9. artikulua , 10. artikuluen 2 apartatuko j) letra, 11. artikuluko 1. ataleko e) letraren edukia, 27.artikulua eta 41. artikuluen 1 apartatuko B) letraren 21 zenbakia aldatu ditu; 31 zenbakia gehitu dio 41. artikuluen 1 apartatuko B) letrari, 4 apartatua 49. artikuluari eta 5. apartatua 50. artikuluari eta 41. artikuluen 1 apartatuko B) letraren 12 zenbakiko azkenurreko paragrafoa kendu du.
- ***Abenduaren 15eko 20/2003 FORU ARAUA, izatezko bikoteen zerga erregimenari buruzkoa. (GAO 2003-12-22).***
 - Bere 7.artikuluak 41.1 B) artikuluen 3.zenbakia aldatu du.
 -
- ***10/2004 FORU DEKRETUA, otsailaren 24koa, hainbat zerga xedapen lurralde komunean egindako lege aldaketa batzuetara egokitzen dituen (GAO 2004-03-02).***

- Bere 2. artikulua 32. eta 33. zenbakiak erantsi dizkio 41.artikuluaren 1 apartatuko B) letrari.
- ***Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).***
 - Bere 6. artikulua honako prezeptu hauek aldatu ditu:
 - Bere lehenengo apartatua:
 - 7. artikuluen 5 apartatua; 11. artikuluen 1 apartatuko e) letra; 14. artikuluen 3 apartatuko c) letra eta 41. artikuluen 1 zenbakiko B) letraren 30 zenbakiak aldatu ditu;
 - paragrafo bat erantsi dio 41.artikuluaren 1 zenbakiko B) letraren 12 zenbakiari;
 - eta 49. artikuluen 3 zenbakia kendu du, laugarren paragrafoa hirugarrena bihurtuz.
 - Bere Bigarrenengo apartatua 6. artikuluen Bi.A) apartatuko 2. araua eta 50. artikuluen 5. apartatua aldatu ditu eta Hirugarren Xedapen Iragankorra gehitu du.
 - Bere Hirugarrenengo apartatua 41. artikuluen 1 zenbakiko B) letraren 28 zenbakia aldatu du.
 - Bere Laugarrenengo apartatua 42. artikuluari 7. apartatua erantsi dio.
- ***Irabazirik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren zerga onurari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-19).***
 - Bere Hirugarrenengo xedapen gehigarriak 41. artikuluen 1 zenbakiko A) letra aldatu du.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).***
 - Bere amaierako seigarren xedapenak hurrengo prezeptuak aldatu ditu: 14. artikuluen 4. apartatua, 42. artikuluen 2. apartatua, 49. artikuluen 1. apartatua eta 51. artikulua.
- ***Etxebizitzaren alokairua sustatzeko zerga neurriei buruzko urriaren 27ko 9/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).***

- 3. artikulua 41. artikularen 1. apartatuko B) letrari 34 eta 35 zenbakiak gehitu dizkio.
- ***Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).***
 - 7. artikulua 53. artikuluko 2. apartatua aldatu du.
- ***8/2006 FORU ARAUA, abenduaren 1ekoa, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituena (2006-12-12ko GAO)***
 - 5. artikulua 41. artikuluko 23. eta 32. zenbakiak aldatzen ditu.
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen, martxoaren 27ko, 4/2007 FORU ARAUA (2007-04-13ko GAO).***
 - Bere zazpigarren xedapen gehigarriak g) letra bat gehitzen dio 4. artikuluko 1 apartatuaren A) letrari.
- ***Uztailaren 9ko 3./2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena. (2008-07-11ko GAO).***
 - 1. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 11. artikularen 1. apartatuko e) letra.
 - 41. artikuluko A) letraren 1. apartatuko h) letra gehitzen zaio.
 - 41. artikuluko B) letraren 1. apartatuko 7, 12, 13, 18, 25, 28, 30 eta 35 zenbakiak.
 - 41. artikuluko B) letraren 1. apartatuko 36 eta 37 zenbakiak gehitzen zaizkio.
 - 42. artikuluko 3. apartatua.
 - 46, 47 eta 50. artikulua.

- ***Urtarrilaren 13ko 1/2009 zerga alorreko presazko Foru Dekretu Araua, honako zergak aldatzen dituenak: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Zerga Bereziak eta Aseguru Primen gaineko Zerga (2009-01-1ko GAO; akatsen zuzenketa 2009-01-26ko GAO)***
 - 3. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu: 18, 19, 21, 22 eta 23 artikulua eta 40. artikuluen 1 apartatuaren B letraren 10 eta 32 zenbakiak.
- ***4/2009 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, zenbait zergatan aldaketa jakin batzuk sartzen dituenak (2009/12/28ko GAO)***
 - Jarraian aipatzen diren prezeptuak aldatzen ditu:
 - 7. artikuluen 3. apartatua.
 - 7. artikuluen 5. apartatu b) letra.
 - 11. artikuluen 1. apartatu e) letra eta f) letra gehitzen du.
 - 14. artikuluen 3. apartatua.
 - 17. artikuluen 1. apartatua.
 - 29. artikuluen 2. apartatua.
 - 41. artikuluen 1. apartatu B) letraren 11. zenbakia.
 - 52. artikulua.
 - 55. artikuluen 1. apartatua.
 - 41. artikuluen 1. apartatu B) letraren 25. zenbakia.
- ***1/2010 FORU DEKRETU ARAUA, urtarrilaren 12koa, zenbait zerga aldatzen dituenak (2010/01/21ko GAO).***
 - Bere 2. artikulua 38. zenbakia gehitzen dio 41. artikuluko 1. apartatuaren B letrari.
- ***2/2010 FORU DEKRETU ARAUA, martxoaren 30ekoa, zeharkako zergen esparruko hainbat zuzentarau gure ordenamendura ekarri eta Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Araua Europar Batasuneko araudira egokitzen duena (2010/04/19ko GAO).***

- Bere 3. artikulua 41. artikularen 1. apartatuko B) letraren 32. zenbakia aldatzen du.

- **6/2010 FORU DEKRETU-ARAUA, abenduaren 21ekoa, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan eta zerga berezien araudian aldaketak sartzekoa (2010/12/24ko GAO).**
 - Bere 1. artikulua 41. artikularen 1. apartatuaren B letrako 16. zenbakia aldatzen du.

- **Zenbait zerga aldaketa onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUA (2010/12/28ko GAO).**
 - Bere 4. artikulua jarraian aipatzen diren aldaketak ezarri ditu:
 - 5. artikulua aldatu du.
 - 7. artikularen 2. apartatuko a) eta d) letrak aldatzen ditu.
 - 8. artikularen d) letra aldatzen du.
 - 10. artikularen 2. apartatuko d) eta f) letrak aldatzen ditu.
 - 11. artikulua aldatu du.
 - 13. artikulua edukirik gabe utzi du.
 - 35. artikulua aldatu du.
 - 41. artikularen 1. apartatuko B) letraren 12. eta 30. zenbakiak aldatzen ditu.
 - 50. artikulua aldatu du.
 - 52. artikularen 3. apartatua aldatzen du.
 - 55. artikularen 2. apartatua aldatzen du.
 - 57. artikularen 1. apartatua aldatzen du.

- **Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).**
 - Bere 9. artikulua 11. artikuluko 1 apartatuaren a) letra aldatzen du.

- ***Maiatzaren 14ko 2/2012 FORU ARAUA, Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zergari Buruzko 16/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa, aldatzekoa (2012/05/21eko GAO).***
 - Xedapen gehigarriak 39. zenbakia gehitzen dio 41. artikuluko 1. apartatuaren B) letrari.
- ***10/2012 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergarena (2012/12/21eko GAO).***
 - Bere amaierako seigarren xedapenak 42. artikuluen 5. apartatua aldatu du. Aldaketak 2013ko urtarrilaren 1ean jarri diran indarrean.
- ***2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituen (2012/12/28ko GAO).***
 - Bere 4. artikulua 11. artikuluen 1 apartatuko d) letra aldatzen du eta 41. artikuluen I apartatuaren A) letrako b), d) eta h) letrak edukirik gabe utzi ditu.
- ***2013ko uztailaren 17ko 5/2013 FORU ARAUA, zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzkoa (2013/07/22ko GAO).***
 - Bere 4. artikulua 41. artikuluko 1. apartatuaren B letrako 25. zenbakia aldatu du.
 - Bere 7. artikulua jarraian aipatzen diren aldaketak ezarri ditu:
 - Bat apartatuak 37. artikulua aldatu du.
 - Bi apartatuak paragrafo berriak gehitu dizkio 41. artikuluko 1. apartatuaren B letrako 28. zenbakiari.
 - Hiru apartatuak zenbaki berria, 40.a, gehitu dio 41. artikuluko 1. apartatuaren B letrari.
- ***17/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak eta beste zerga egokitzapen batzuk sartzekoa (2014/12/19ko GAO).***

- Bere lehenengo xedapen gehigarriko 5. apartatuak 41. artikuluaen I. apartatuko A. azpiapartatuaren c) letra aldatzen du.

- **18/2014 FORU ARAUA, abenduaren 16koa, Gipuzkoako lurralde historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauan zenbait zuzenketa tekniko sartu eta zerga alorreko beste aldaketa batzuk onartzen dituena (2014/12/19ko GAO).**
 - Bere 3. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:
 - 10. artikuluaen 2. apartatuko e) letra.
 - 11. artikuluaen 1. apartatuko c) letra.
 - 14. artikuluaen 1. apartatua.
 - 16. artikulua.
 - 41. artikuluaen I. apartatuko B. letraren 33. eta 35. zenbakiak.

- **2/2015 FORU DEKRETU ARAUA, urriaren 20koa, sozietateen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga aldatzen dituena (2015/10/27ko GAO).**
 - Bere 3. artikulua edukirik gabe uzten da 41.I.B) artikuluaen 23. zenbakia eta aldatu egitenda artikulua horren 32. zenbakiaren 4. apartatua, 2015eko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- **6/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Aberastasunaren eta Fortuna Handien gaineko Zergaren erreformari buruzkoa (2015/12/24ko GAO).**
 - Bere amaierako laugarren xedapenak edukirik gabe uzten du 42. artikuluaen 5. apartatua.

- **7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena (2015/12/28ko GAO).**
 - Bere 4. artikulua 41.I.B artikuluaen 34. zenbakia aldatu du.

- **2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilar buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzea (2016/11/18ko GAO).**
 - Bere 4. artikulua 7.2 artikularen b) letra berridatzi du, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- **2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUA, 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen dituen (2016/11/18ko GAO).**
 - Bere 4. artikularen lehen ordinalak edukirik gabe utzi du 41.I.B artikularen 29. zenbakia.
 - Bere 4. artikularen bigarren ordinalak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 6.Bat.A).1 artikularen bigarren paragrafoa.
 - 41.I.B) artikularen 28. zenbakia.
 - 41.I artikularen C) letra.
- **1/2018 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituen (2018/05/17ko GAO).**
 - Bere 4. artikulua 7. artikularen 5. apartatuko b) letrari amaierako paragrafo berri bat gehitzen dio eta 41. artikuluko I. apartatuko b) letraren 21. eta 40. zenbakiak aldatu ditu.
- **3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen (2019/02/20ko GAO).**
 - Bere 5. artikularen bat apartatuak 41.I.A artikularen b), d) eta h) letretan edukia sartu du.
 - Bere 5. artikularen bi apartatuak 55 artikularen 1. apartatua aldatu du.
- **1/2020 Foru Araua, apirilaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen (2020-04-28ko GAO).**
 - Bere 5. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:

- 28. artikulua.
- 41. zenbakia gehitzen zaio 41.I artikuluko B) letrari.
- 42. artikuluko 1. apartatua.
- 45. artikuluko 1. apartatua.
- **2/2020 Foru Dekretu-Araua, maiatzaren 5ekoa, Covid-19aren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri osagarriak ezartzen dituen (2020/05/7ko GAO).**
 - Bere 3. artikuluko 2. apartatuak 41.I.B artikuluan jasotako 39. zenbakia aldatzen du.
- **6/2020 Foru Dekretu-Araua, uztailaren 21ekoa, COVID-19aren osasun larrialdiaren ondorengo zerga neurri gehigarriei buruzkoa. (2020/07/22 GAO).**
 - Bere 2. artikuluko 41.I.B artikuluan jasotako 29. zenbakiari edukia ematen dio.
- **8/2020 Foru Dekretu-Araua, urriaren 13koa, Covid-19aren zenbait ondorio arintzeko presako neurri osagarriei buruzkoa.**
 - 2020ko uztailaren 9tik aurrerako ondorioekin, bere 6. artikuluko 41.I.B) artikuluan 23. zenbakiari edukia ematen dio.
- **2/2021 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 23koa, COVID-19arekin zerikusia duten aparteko zerga neurri gehigarriak ezarri eta jarduera ekonomikoa berrabiarazten eta digitalizatzen laguntzeko beste neurri batzuk onesten dituen.**
 - Bere 6. artikuluko 41.I.B) artikuluan 43. zenbakia gehitzen du.
- **3/2021 Foru Araua, apirilaren 15ekoa, 2021. urterako zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onesten dituen. (2021/04/21eko GAO)-**

Bere 4. artikuluko prezeptu hauek aldatu ditu:

 - Bat apartatuak 28. artikuluen bigarren paragrafoa.
 - Bi apartatuak 42. zenbakia gehitzen dio 41.I.B) artikuluari.
 - Hiru apartatuak azken paragrafo bat gehitzen dio 41.I.B) artikuluen 30. zenbakiari.
- **1/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, 2022. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen.**

- Bere 9. artikulua 41.I.B) artikuluan 44. zenbakia gehitzen du 2021eko azaroaren 4tik aurrerako ondorioekin.
- **2/2022 Foru Araua, martxoaren 10ekoa, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergarena.**
 - Bere azken xedapenetako lehenak 10. artikuluko 2. apartatuaren a) letra aldatzen du.
- **4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituena.**
 - 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin 7.5 artikulua lehen paragrafoa aldatu da.
- **1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena. (2023/01/23ko GAO)**

Bere 6. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:

 - Bat apartatuak 35. artikulua.
 - Bi apartatuak 41.I artikulua B) letraren 39. zenbakia.
 - Hiru apartatuak 45. zenbakia gehitzen dio 41.I.B) artikuluari.
 - Lau apartatuak 46. zenbakia gehitzen dio 41.I.B) artikuluari.
- **1/2024 Foru Araua, maiatzaren 10ekoa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena (2024/05/17ko GAO)**

Bere 8. artikulua prezeptu hauek aldatu ditu:

 - Bat apartatuak 41.I.A) artikulua a) letrari bigarren paragrafoa gehitu dio.
 - Bi apartatuak 41.I. B) artikulua 3. zenbakiaren bigarren paragrafoa.
 - Hiru apartatuak 41.I. B) artikulua 21. zenbakiaren azkenengo paragrafoa gehitu dio.
 - Lau apartatuak bigarren xedapen gehigarria gehitu dio.
- **1/2025 Foru Araua, maiatzaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten ditu (2025/05/15eko GAO).**

Bere 6. artikulua 11. artikuluko, 1. apartatuko b) eta c) letrak aldatzen ditu.

24. artikulua 44.I.B) artikuluan 33. eta 46. zenbakiak aldatzen ditu.